


uztarria

AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA

Zelaitxon bi
zine areto
txiki egingo
dira (3-5)



Hilabetekaria • 2002ko martxoa, 27. alea • WWW.uztarria.com



KAITOREN ERRETIROA

Nicolas Oteizak telebistako lana Urtzi semearen esku utzi du (24-27)



irratxo

Jostailuak - Paperdenda

Tel. 15 05 30

Sanjuandei auzuen



**SUKALDEKO ALTZARIAK
BAINUGELAK
HORMAN SARTUTAKO ARMAIRUAK**

PEREZ ARREGI, 9 Tfnoa. eta Faxa: 943 15 05 10



Formación de conductores • Grupos prestakuntza



**DUEN ORDU LEGIAGATIK
DITUEN ZENTROENGATIK
ESKAITZEN DEN ARRETA BEREZIAGATIK
DUEN KALITATEAGATIK**

AZKOITIA
Ibai ondo, 16

AZPEITIA
Pablo VI, 20 behea

Maite Segurola, feminismoaz mintzo, eta kezkatu (12)

Diego Garciaren oroimenez, eskultura Loiolan (18-19)



Patxi Goenagari elkarrizketa, euskarari buruz (31-32-33)



Alberto Bereziartua, Estatu Batuetan (46)

uztarria

Zinealdea S.A. promotorak bi zine areto txiki egiteko proiektua du, Zelaitxoren lekuan; Udala, berriz, Soreasu berritzea aztertzen ari da

BI ZINE ARETO TXIKI EGITEAR ZELAITXON



Nerea Uranga

Zelaitxoren lekuan, Zinealdea S.A. promotorak 35 etxebizitza, komertzio lokalak eta garajeak egingo ditu, baina baita, Uztarriak jakin duenez, bi zine areto txiki ere. Eraikinaren beheko solairua eta lau alturako eraikuntza baten proiektua eginda du promotorak.

Zinealdea S.A.k Ansoalde familiari erosi zion Zelaitxo antzokia, eta Azpeitiko Udalarari orain dela bi hilabete aurkeztu zuen proiektua. Altuna y Uria S.A.-ko gerente Fernando Lucasek Uztarriari esan dionenez, "Udalak dagoeneko lizentzia eman du, eta baita eraikuntza bera botatzeko baimena ere. Orain, egite proiektuaren baimena besterik ez da falta, eraikuntza bera altxatzen hasteko". Promotorak uste du 24 hilabete gutxienez beharko direla eraikuntza bukatzeko. Aurten, urtarrilaren hasieran bota zuten Zelaitxo antzoki eta zine aretoa. Sarrera bera zutik gelditu zen, gainean etxebizitza batzuk baititu, hain zuzen lehen Zelaitxoren jabeak ziren Ansoalde familiarenak.

SARRERA BERA ZIURRENIK. Egingo diren bi zine areto berriek sarrera ziurrenik Zelaitxok zuen bera izango dute. Eraikiko diren garajeek, berriz, atzeko kaletik edukiko dute sarrera.

Zelaitxon egingo diren bi zine aretoak txikiak izango dira; 110 edo 120 eserleku inguru izango ditu bakoitzak. Promotorak ▶▶

datuak

● **INGURUAN BATERE EZ.** Zelaitxoko zine areto hauen ezaugarriak betetzen dituen aretorik ez dago inguruko herrietan. Horrelako zine areto txikiak Donostian eta merkatal gune handietan baino ez daude. Bi zine areto txiki hauek ehunen bat eserleku izango dituzte.



Zine areto txiki bat.

● **TOKI BEREAN HIRUGARRENA.** Herrian garai bateko zine aretoa Luminor zen. Hura itxi eta oso gertu Zelaitxo ireki zen, 1955eko uztailean. Eta orain, berriz, Zelaitxoren lekua, hemendik bi urtera gutxi gora-behera, bi zine areto txiki hartuko dute.

► oraindik ez du zehaztuta gero nola kudeatuko diren aretoak. Zinerako sarrera ere, ziurrenik, lehengo Zelaitxo aretorako sarrera bera izango da.

Zelaitxo antzokiak 1955eko uztailean 24an ireki zituen ateak. Orduzkerora anitzetako ekitaldiak egin izan dira. Baina azken urteotan zine areto bezala funtzionatzen zuen, batik bat.

Zelaitxo eta Soreasu zine aretoekin Azpeitiak asteburuetan bi zine emanaldiren aukera zeukan, eta hori ez da Azpeitiaren tamainako herri askotan gertatzen. Dena den, aukera bai, baina bi zine aretoen egoera ere ez da oso ona izan azken urteotan, bietan ere berritze lanak urriak izan baitira.

Bi areto txiki egingo direla eta, Azpeitiko Zine Klub taldeko kide Juan Carlos Arellanok aukera gehiago izatea "ona" dela uste du, "askotan entzun izan ditugulako komentarioak herriko zine aretoen egoera dela-eta, horregatik joaten dela jendea Azkoitira zinea ikustera edota beste norabaitera". Dena den, Zine Klubekoentzat herrian bi zine areto izatea, orain arte Soreasu eta Zelaitxorekin gertatu izan den bezala, eragozpena izan ohi da askotan. "Lehia kontua



Zelaitxo zine aretoa bota zuteneko irudia. / NEREA URANGA

sartzen da hor, zeren eta maiz film bat ekartzea pentsatu izan badugu eta Zelaitxok ekarri behar bazuen, guk ezin izaten genuen jarri. Hau banatzaileen kontua izaten da, eta askotan guretzat muga da".

SOREASUN ZER? Kultur azpigituren kontua azken hilabeteotan hautsak arrotzen ari da. Adibidez, Udalean Soreasu zine aretoaren birmoldaketa eta berritzea aztertzen ari dira. Hala, iazko azaroan, Antzerki Topaketan atarian, Sarobek egindako proiektu teknikoaren maketa jarri zuen erakusgai topaketan erakusketaren barruan. Proiektu honek Soreasu eraberritzea aurreikusten du eta 600 milioi pezetako aurrekontua luke. Baina, Udaleko Kultura Batzordeko arduradunak beste aukera batzuk ere aztertzen ari dira. "Soreasu eraberritu edota eraikina bera bota eta berria egin, bi aukerak aztertzen ari gara. Soreasuko aretoa zein taldek erabiliiko luketen eta zer behar betetzeko egin beharko litzatekeen aztertuko dugu, eta ondoren ikusiko da zein aukerari helden zaion", esan digu Aitor Gorrotxategi kultura batzordeburuak.

“Orain egite proiektuaren baimena besterik ez da falta eraikuntza bera altxatzen hasteko”

Fernando Lucas
(Altuna y Uria S.a.ko gerentea)

“Asko entzun izan ditugu komentarioak herriko zine aretoen egoera dela-eta”

Juan Carlos Arellano
(Zine Klub-eko kidea)

LOIOLA KLINIKA



Manuel Salaberria
BEGIKO SENDAGILEA

BEGIKO MIKROKIRURGIA:

- KATARATA. MIOPIA. HIPERMETROPIA.
- BEIRAKARA-ERRETINAKO GAISOTASUNAK
 - Erretina askatze.
 - Makulako gaisotasunak.
 - Erretinopatia diabetiko konplikatuak.



Esther Usandizaga
FAMILIAKO MEDIKUNTZA
ETA MEDIKU OSTEOPATA

- Azterketak (Analisiak...).
- Arreta jarraia.
- Etxera ere joaten gara.

OSTEOPATIA

- Bizkarrezurraren errehabilitazioa (gerrrialdekoa, bizkarraldekoa, zerbikala).
- Gihar eta artikulazioetako arazoak.

Loiola auzoa, 25-C behea ♦ Tfnoa: 943 15 17 52 ♦ 20730 Azpeitia-Loiola






Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62

Soreasuko proiektuaren maketak



SOREASU ERABERRITZEKO MAKETAK. Sarobe A.E.G.k Soreasurako proiektu tekniko bat aurkeztu zuen, eta iazko Euskal Antzerki Topaketatan eman zen ezagutzera. Soreasun, Antzerki Topaketei buruzko erakusketan ikusgai izan zen maketa, argazkitan. Proiektuaren arabera, Soreasuri solairu bat gehituko litzaioke eta bi alboetan lokalak lituzke. Aurrekontua 600 miloi pezetakoa litzateke. ●

Daukagun **kultura maite** dugulako,
euskal eskola nazionalaren bidetik
mundu zabalera.

ikasberri

A Z P E I T I K O I K A S T O L A

loiola etorbidea, 26 - 20730 azpeitia - tel 943 15 12 46 - faxa 943 15 17 76 - ikasberri@ikastola.net

amuko zubitik Mikel Arregi

BURUHAUSTE DEN ETXEBIZITZA

Gaur egun Azpeitian dugun arazo larrienetakoa etxebizitzarena dugu, eta bada horren arrazoiak eta konponbideak bilatzen hasteko ordua. Gu baino helduagoek laster asko diote: "Oso komodo daude gazte horiek gurasoen etxean. Sar daitezela gu bezala kreditu batean, alferkeriak alde batera utzita!". Gazteentzat, emantzipatzea gero eta zailagoa da: 1994. urtetik 2001era bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren prezioak %80 igo dira: 19 milioi pezetatik 34'5 milioira (Azpeitian ere pareko gabiltza). Eta gazteen soldatak ez dira horren ha-marrenik ere igo.

Azpeitiko Udalak berriki aurkeztu du Babes Ofizialeko etxebizitzak eta Udal Babeseko etxebizitzak eraikitzeako asmoa (kalearen gorritasunean egindako lan eskergaren eraginez, neurri handi batean). Babes Ofizialeko etxebizitzak eraikitzea aurrerapausoa dela ukatu gabe, arazoa konpontzeko ez dela nahikoa iruditzen zait (zortea dutenena konpondu arren).

Udalak, horrez gain, zerbait gehiago egin

beharko luke. Premian dauden guztientzat etxebizitzak eraikitzea ia ezinezkoa da, baldin eta guztiak jabetzara bideratzen badira. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zait administrazioek aplikatu beharreko neurriak bi printzipioetan oinarritzea:

- Dagoena aprobetxatu. Gure herrian 1.500 bat etxebizitza daude hutsik. Horiek alokaurara ateratzeko neurriak jar daitezke. Jabeari komeni zaio, baldin eta erabiltzekoa asmorik ez badu; eta etxebizitza erosi ezin dutenei ere bai, noski.

- Eraikitakoari ahalik eta probetxu handiena atera. Administrazioak eraikitzen duena administrazioaren beraren esku geratu beharko litzateke. Nola? Udalak, etxeak saldu beharrean, jendeari epe luzerako alokatuz. Honela, jendearen etxebizitza premiari erantzuten zaio, espekulazioa motelduko litzateke, eta errentan dagoenak etxea uztea erabakitzean, administrazioak berriro badu premiadunen beharrei erantzuteko etxerik, gehiago eraiki beharrik gabe.

azketako ude Kepa Susperregi

'FEDEAREN TESTIGU' GOGOETA ALDIA

San Sebastian eta Inauteri jaiak igaro ondoren boligrafoa hartu eta zerbait idatzi beharrean naiz, berriro. Argibideren bat edo beste emateko aprobetxatuko dut honoko aukera hau.

Aste Santua iritsi bitarteko bost asteko tartean, bere fede testigantza edota fede bilakarearen testigantza eskainiz, pertsona ezberdinek idatzitako zenbait artikulua irakurtzeko aukera izango dugu gure inguru honetan argitaratzen diren egunkari ezberdinetan.

Harrigarria gertatuko zaizu, agian. Baina, artikulua idaztean, eta hauxe da argibidea, gure Elizbarrutitik jaso duten gonbiteari erantzuten diote. *Fedearen testigu* ikur hitz edota lemairenean, ekintza ezberdinez osatutako gogoeta aldia antolatu baita gure artean.

Gure artean ezaguna dugun kezka nagusi

batek eragiten du gogoeta hau. Gure kulturako eta gure garaiko baldintza jakinetan bizi behar dugu fededunok gure sinesmena. Horretan ez dugu zalantzarik. Arazoa edo kezka da, izan ere, "gutako asko kezkatu bizi garela, fedea testigantza eskaintzeko eta fede hori, bai helduei bai belaunaldi gazteei, transmititzeko aurkitzen ditugun zailtasunen aurrean".

Hau da, hain zuzen ere, aurtengo lan urterako gure Elizbarrutiak bere buruari ezarritako hiru egitasmoetako bat. Beste biak ere, *Laikoen eginkizuna Elizan* eta *Pastoral Antolamendu era berriak* martxan dira dagoeneko, eta helburu nagusi bat dute: datozen urteetan gure elizak biziko dituen baldintzei aurre egiteko bide berriak antzeman eta aukera egitea.

puntie ateaiez

Enekoitz Esnaola

HITZEN ONDOEZA

Horrela dio Sarrionandiak *Hitzen ondoeza* bere liburuaz: "Banuen beharra gauza batzu esateko baina, batez ere, badut beharra hitzak aintzat hartzeko, gauzak oraindik izenda daitezkeela sinesteko. Jorkoa hau da: [liburuko] oskolak banan bana apurtu beharko dira barrua erre-kistatzeko, egia erdia edo gezur t'erdia, gezur erdia edo egia t'erdia gordetzen duten. Izan ere, liburu ez da gogoetena, baizik eta aurregogoetena. Aurregogoe-tak atxakiak dira, irakurleak gogoeta egin dezan". Elegante Egunkoia dela eta, bi hitzen erabilerekin ondoeza sortu didate. "Elkarrizketa" da hitz bat, EAJK eta EAK erabili dutena gazte lokalaren kontuan. *Mamuen* aldarrikapena egiteko era "baketsua" da bestea. Bi hitzok hemen jartzea ez da aitzakia, hitzen jabeek gogoeta egin dezaten baizik.

bota bertsue

Xebaxtian Lizaso

DIEGO GARCIA

Laguntzako ispilu zinan gazteentzako zutabe zu hil zinaden lekua berriz oroimen askoren jabe eskultura bat jartzear dago ta beti loreak daude inoiz ez gara handik pasatzen zuri begiratu gabe.

Eliteraino eraman zintun gogoak edo afanak lekuko dira zuk egindako marka, froga eta lanak zu bi herriren uztarri zera garbi dadukagu danak zure babesa sentitzen dute bide hortan dabilzanak



KULTURALDIA. Hasi baino ez da egin Uztarraren I. Kulturaldia, baina aurreko lana ona izan da; herriko kultur taldeen artean koordinazioa egon da, eta Udaleko Kultura Batzordeak jarrera ona erakutsi du.



KARRERAK ITXITA. Uztarriako web inkestan gehiengoa karrerak irikitzearen alde bazen ere, Inauterietan sokamuturra ari zen bitartean karrerak itxita zeuden. Eta hau parte hartzearen aurkakoa da.



GAZTE LOKALA. Alkateak esan du gazteen inkestan 18. azaldu zela gazte lokalaren eskara. Azpeitian Gazteok Zer?!-ek dio 40 talderen babesak dute la lokala eskatzean. Nola neuritzen dira gauzak?

gutunak

Zentimoak ala xemekoak?

Euroak pezetaren lekua hartu duen honetan, hitz bat dabilkigu hitzetik hortzera: zentimoa. Baina betidanik gure herrian xemekoa izan omen da. Aurretik, xemekoa erabili baldin bada, zergatik orain zentimoa? Lehen ere, espainolaren eraginez hitz mordoak galtzen eta kutsatzen joan baldin bagara, gurean beti ibili diren hitz hauek ez ditugu galtzen utzi behar. Horixe da, behintzat, nire uste apala. Nik, behintzat, xemekoa erabiltzeko ahalegin horri helduko diot.

Iker Orbegozo

Kaixo Uztarria

Zu kalera atera eta berehala egin nintzen harpidedun. Hasieran kontu eta albiste politikak zenituen. Gerora handitzen eta sakontzen joan zinen, elkarrizketak ere jorratuz. Gaur egun aldizkari modernoa eta herrian ezagutua zara.

bada kejie!



Loiolabideko semaforoak. / UZTARRIA

Semaforoak beti gorrian

Loiolabideko oinezkoen semaforoekin gertatzen dena izugarria da. Correos-etik errepedez bestaldera pasatzeko, oinezkoak pasatzeko lekura joan, oinezkoen semaforoa berdean jartzeko botoiari eman, eta batek minutuak eta minutuak egin behar izaten ditu esperoan. Itxoinez, egonean, eta errepedea hutsik, autorik ez batetik bestera eta lasterka errepedea pasatzea besterik ez zait burutik pasatzen. Zergatik? Oinezkoen semaforoa pixka batean ez delako berdean jartzen, nahiz eta alde banatara jendea oinez pasatzeko zain egon. Egunen batean norbait zerbait pasatu arte. Zergatik autorik ez dabilen bitartean, ez da aguroago berdean jartzen oinezkoena?

Amaia Arregi

Orain arte izan dudak harpidetza onena izan zara, aldizkari ederra jasoz hilero ezer ordaindu gabe, eta nork finantziatzen zintuen pentsatzen jarri gabe. Egun hauetan gutun bat bidali didazu etxera, kosteak eta finantziaketak nola diren azalduz, eta begiak ireki eta pentsakor utzi nauzu. Erabakia: bai, bazkide izan nahi dut.

Martxoan ikusiko dugu elkar.

Felix Etxabe

Afrikatik

Ni, Mikel Garmendia naiz, azpeitiarra, eta hogeitun urte dela Afrikan lanean ari naiz apaiz eta irakasle bezala.

Benetan eskertzen dizuet zuek bidaltzen didazuen Uztarria Azpeitiko aldizkaria. Benetan interesgarria, eta Azpeitiko bazterrak eta aurpegiak ikusten ditudanean *home sick* (herri-minarekin?) sentitzen naiz. Jarraitu horrela. Gora Azpeitia! Agur.

Mikel Garmendia
(Manzini / Swazilandia)

akullue




Leire Ostolaza

LOKALIK EZA
DA GAZTEON
MAMUA

Denok dakigu honezke-
ro aurtengo Inauterie-
tan izan dela nahiko hauts
harrotu duen gertakizu-
bat herrian. Bi aldetatik ja-
rri dituzte dagozkien sala-
ketak eta ez naiz ni hasiko
hemen orduko gertakizu-
nak berriro aipatzen. Daki-
dan guztia da gazte horiek
bazutela arrazoi bat ma-
muz janzteko eta ez zela le-
henengo aldia hala egiten
zutena.

Kontua da Azpeitian gaz-
te ugari bizi garela eta ha-
rrigarria (lotsagarria ez
esateagatik) horrelako he-
rri batean ez izatea ez gaz-
tetxerik, ez kultur etxerik...
gure kezkak, arazoak edo
zaletasunak elkar-truka-
tzeko. Nik dakidanez, loka-
len eskakizuna aspaldiko
kontua da eta hain beldur-
garriak ziruditen *mamu*
haiek, protesta isila eta ba-
ketsua egiteko modu bat
bestarik ez ziren. Udalak
bere aldetik, oraingoan ere
nahiago izan du bere bu-
rua biktimatzat jartzea
mundu guztiaren aurrean,
egunkari eta telebistei de-
itu eta harriak eskuan har-
turik atera zireneko garai
haiek denoi gogoraraziz.
Bitartean nahiago du he-
rrian dauden lokal hutsak
armiarma sareentzat erre-
serbatzea, etekinen bat
atera ezin duten kasuan.
Udala *mamuak* harrapa-
tzen dabilen bitartean, lo-
kalik eza da gazteon ma-
mua.

inkestie

Azpeitiko hileroko ganadu
feria ona al da edo indartu
egin behar da?

Jose Manuel Labaka
(jubilatua)



“Gaur egun ez da ganadu eta gauza askorik izaten ganadu ferian. Lehen baino jende gutxiago etortzen da. Dena den, ni neu ez nahi oso ganadu feria zalea”.

Pedro Mari Uzkudun
(langilea)

“Gauza ederra da ganadu feria hau. Bertan gauza asko jakiten da. Baseritarrak elkarrekin hitz

kanpoko begiradie

HAU DA AZPEITIA DIOT



Xabier Gantzarain (idazlea)
Azpeitia eta azpeitiarrok nola ikusten
gaituen idazteko eskatu dio Uztarriak
Xabierri. Hemen haren ikuspuntua:


Eta neu lotsatzen naiz zuek lotsatzen ez zaretela ikusita. Ez pentsa azkoitiar izateaz harro nagoenik. Nonbaiten jaio behar, esan zuen poetak. Eta igel bihurtu nintzen.

Hau da Azpeitia: euren putzuaz harro dagoen apo saldo bat. Ez dagoen beste apo pilo bat. Ezezagunak, ezagunak, ikaskide ohiak, pisukide ohiak, nire oroitzapen lausoen kutxan apopilo daudenak. Txikitako lotsarik haundienetakoa pasa nituen igerilekua. *Esklabak*. Gazteagoak ginenean intsumisioaren aldeko manifik egiten genituen *bariantea*. Gero intsumiso izateagatik ezagutu nuen epaitegia. Anbulategia. Bizkarra izorratu arren begiak ireki dizkidan Soreasuko zine-foruma. Orainari baino iraganari lotuagoak dakuskidan lekuak, tabernak, "baserri elektronikoa", igel gazteari hazten lagundu dioten bizipen ez beti gozoak. Kuadrilakoon larunbat gauetako abenturak eta kalenturak. Topikoak betez azkoitiarrak garela-ko gutxiesten gaituzten harroputz batzuk. Apokeriaz apokeria boterean mantentzen den apotzar lotsagarria eta hau loriatzeko bizi den *bufo calamita* multzoa. Baina batez ere, gehiena behar nituenean imeilak bidali dizkidaten edo lantzean behin nitaz akordatzeko lain maite nautela badakidan adiskide batzuk, inoiz amaituko ez den mende batean jaio ginela esan zigun maisu bat eta aspaldian deitu ez didian laguna. Hau da Azpeitia diot.

Eta ez naiz lotsatzen neure herrian ere ama delako semearen heriotza jakiten azkena.

Bizitza zoriontsuago baten ametsak garagar-dotan itotzen diren herria ere bada Azpeitia. Desioen eskualdeko hiriburua. Ezinen azoka paratzen dutena. Auto garestiz eta arropa doto-rez mozorrotutako bakardade izotzekoen bizi-toki. Antzerki Topaketen eta egunero antzerkia egin behar dutenen gela huts. Haundinahiaren gozotegietako zurrumurruren oihartzunen murr. Altzairuzko bihotzen aurrezki kutxa eta banku ustelen paradisu. Iraganaren trenaren erbeste, trenaren museoa ireki ondoren. Poeten jaioterri eta euskararen berotegi. Bizinahiaren etorkizuneko herri piloto.

Hau da Azpeitia diot eta ez naiz lotsatzen azpeitiarra ere izateaz.



egiten dute. Nahiz eta ganadu asko ez ekarri, ahoz aho asko saltzen da bertan”.

Iñaki Atorrasagasti (baserritarra)



“Ez naiz ni asko etortzen Azpeitiko ganadu feriara. Urtean behin baino ez naiz etortzen bueltaxka bat ematera”.

Mariano Etxaniz (jubilatua)

“Neska zaharrek eta gazte-

UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTA

1. GALDERA: Azpeitiko tabernatan musika altuegi edo baxuegi jartzen dela iruditzen zaizu?

- Altuegi: %45
- Baxuegi: %35
- Ondo: %20

ek etorri beharko lukete ganadu feriara; horrek feria indartzen lagunduko luke. Gazteak eta emakumeak dira baserriaren etorkizuna eta, era berean, ganadu feriarena ere bai. Baserrian jende askoren beharra dago, lan asko egin behar baita”.

Ximon Soraluze (baserritarra)



“Oso ona da Azpeitiko ganadu ferihau. Gaur egun, ganadu gutxi ekartzen da ferira saltzeko, baina elkarrekin egoteko eta kontuen berri

jakiteko elkargune egokia da baserriarrentzat”.

Txomin Larrañaga (langilea)

“Azpeitian bezalako ganadu feriak Gipuzkoan gutxi geldituko dira, horrela hileroko egiten dena. Tolosan izango da beste bat, baina, bestela, ez dut inon hileroko ganadu feria egiten denik. Horrelako feriak indartzeko, aurretik baserriak indartu behar direla uste dut, baserrien egoera hobetzen bada, horrek berorrek ekarriko du ondoren ganadu ferien indartzea”.

webeko eztabaidie

GAIA: Uztarrria Kultur Koordinadoraren web orriko ‘eztabaidan’ atalean Azpeitiko drogaren kontsumoa eta erabileraren inguruan aritu dira kide batzuk. Horratx sorta zabaleko bi ale:

Hamaika kontu...

Drogaren gaia oso-oso zabala da, eta helduleku asko ditu, hori egia da.

● Uste dut gai honetaz eztabaidatzeko beldur handia dagoela gure herrian ere. Bakoitzak jakingo du zergatik daukagun beldur hori. Gai konplikatuak delako? Beno, askotan gai zailei ere heldu behar zaie...

● Denok dakigu noiz eta nola kontsumitzen diren drogak Azpeitian. Kenduta txikitero batzuk (gero eta gutxiago, *portzierto*), edo porrozale batzuk, aste bukaeran kontsumitzen da droga gehien (telebista-eta alde batera utzita).

● Droga denak saku berean sartzea oso ohikoa da gure artean. Niri horrek ez dit balio. Ez delako gauza bera garagardo bat edo *speed* arrasto bat hartzea. Aldagarri asko daude. Gakoa, ‘nola kontsumitzen da?’ galderan dago.

● Drogen kontsumoak egundoko eragina dauka, nire ustez, herriko taldeen eta jendearen funtzionamenduan. Nik, esate baterako, larunbat baten *jesukriston* parranda botatzen baldin badut, igandea, astelehena, astearte... *krixto* eginda pasatzen ditut. Neurtzea, horixe kontua...

● Oso garrantzitsua da, niretzat, droga batek norberarengan daukan eragina ezagutzea. Eta horren arabera kontsumitzea.

● Orain dela urte batzuk aparatatu errepresibok Euskal Herrian heroina lepo sartu zutela oso zabalduta dagoen kontua da. Gaur egun zer pasatzen da *speed*-arekin, kokarekin...? Gaur

egun koka orain dela hamar urte baino merkeago omen da? Merkatal interesak bakarrik?

● Ameriketako Estatu Batuetako adibide bat, Malcolm X-en biografian azaltzen dena: beltzen eskubideen aldeko mugimendua indar betean zegoenean, Bronx eta beste auzo batzuk dena deterioratzen joan ziren, *crack*-aren eta abarren eraginez asko. Mugimenduen egundoko kaltea eraginez. Orduan, beltzen eskubideen aldeko mugimenduko batzuk musulman bihurtzea erabaki omen zuten (hartara, ez alkoholik, ez *crack*-ik...). Ez zait iruditzen halako jarrera extremistak egokienak direnik, baina...

Eta horrela, hamaika puntu daude ukitzeko.

Naxi

Aukera denek dute

Nik ez dut uste kontu honetan gure egoera ezertan bereizten denik beste herriekiko. Eta nik uste dut, droga bigunen eta gogorren artean bereiztea ondo dagoela, justua dela, eta logikoa. Ez droga legal eta ilegalen artean bereiztea, baina bai bestea. Naxi-k esan bezala, ez da berdina garagardo bat hartu edo *speed* arrasto bat. Eta ez da berdina, ezta ere, jakinaren gainean egin edo enteratzen ez den adinean egin, adibide bat emateko. Hemen informazio gutxi dago. Nahiz eta gaurko gazteek, askotan, dena dakitela eman. Edo behintzat, halaxe uste dute.

Arauntza

“Topikoak betez azkoitiarrak garelako gutxiesten gaituzten harroputz batzuk”

“Ez naiz lotsatzen neure herrian ere ama delako semearen heriotza jakiten azkena”

“Auto garestiz eta arropa dotorez mozorrotutako bakardade izotzekoen bizitoki”

hausnartzen

GAIA: 'Komunikabideak Azpeitian'. Zergatik erosten dugu prentsa espainola? Zergatik ez dugu irakurtzen euskarazko prentsa? Herri abertzalea izanik, zerk hutsegiten du?...

Oharra: hurrengo alean ere eztabaida hau plazaratuko du Uztarriak; beraz, idatzi nahi duenak bidali artikulua aldizkariaren helbidera

EUSKALDUN GARENON EGUNKARIA

Euskaldunen artean, egunero irakurtzen duten egunkaria dela-eta, galdezka hasiko bagina, gazteek batez ere, gurasoek erositakoa irakurtzen dutela erantzungo lukete. Izan ere, egunkaria erostearena eta irakurtzearena ez da gizabanakoari edo norbanakoari lotutako gorabehera, baizik eta, taldeari edo, zehatzago esanda, familiari dagokion aztergaia da.


Jaiotzen garenetik gizarte-sareak edo gizataldeak sortzen eta osatzen ari gara etengabe. Bizitzako lehen urteetan gizarte-sare askotako partaide izaten gara eta adinean aurrera egin ahala, geure sare propioak sortzen ditugu. Sare horietan izango dugun kokagunea (gure ekintzekin beste kideen jokamoldeetan eragiteko ahalmena) ezberdina izango da. Hala, geure bizitzan sortzen eta osatzen dugun gizarte-sarerik iraunkorrena familiarena izan ohi da. Jaioberritan familia osatu egiten dugu eta, gerora, geuk sortzen dugu geure familia propioa. Familia da gizabanakoak izan ohi duen lehen taldea, lehen harreman-sarea eta, hain zuzen ere, gizabanakoaren lehen sozializazioa familian gertatzen da.

Gizabanakoaren jokamolde soziala ez dago bere gizarte-saretik, gizataldetik, isolatuta. Gizarte-sareak edota gizataldeak bere baitako kideei, era batera edo bestera jokatzeko, *aukerak* emango dizkie batetik, eta *mugak* ezarriko dizkie bestetik. Beste era batera esanda, gizarte-sareak edota gizataldeak jokabide jakin batzuk baietsi eta bultzatuko ditu eta beste batzuk ezetsi eta galaraziko.

Ohiko familiaren harreman-sarean gurasoek, beren kokagunea dela-eta, gainerako kideen (seme-alaben) jokaeretan eragiteko duten ahalmena erabatekoa da. Hizkuntzari dagokionez, gurasoek erabakiko dute zein izango den familiako hizkuntza eta, era berean, seme-alaben ama-hizkuntza. Ildo beretik, gurasoek erabakiko dute seme-alabek zein hizkuntzatan eskolaratuko diren (beti ere, giza-inguruneak edo gizarteak aukera hori ematen badie). Eta, besteak beste, gurasoen baitan dago zein egunkari irakurriko duten etxean. Kontuak honela, etxe batean gaztelerazko egunkaria bakarrik erosten bada, etxe horretako kide guztiei ez zaie *aukerarik* emango euskaraz irakurtzeko, edo beste era batera esanda, eguneroko berriak euskaraz irakurtzeko *mugak* eta trabak jarriko zaizkie, nahita edo nahi gabe.

AUKERAKETAN ERAGILEAK. Ikus dezagun orain egunkariaren aukeraketan zein eragilek esku-hartzen duten:

- Gurasoak beren familia propioa osatu aurretik beste familia banatako partaide ere izan dira eta badira. Familia horietan ere egunkari jakin bat erosteko eta irakurtzeko **ohitura** baldin bada, ohitura horrek eraginda, familia propioa osatzerakoan, egunkari bera erosten jarraitzeko joera dago (jabetuta edo jabetu gabe). Kasu honetan ere, gizarte-sareak (txikitako familiak) gizabanakoen (gurasoen) jokamoldean duen eragina nabarmen gel-



ditzen da. Giza jokabidean ohiturak indar handia du. Hizkuntza kontuetan, esate baterako, familia osatu aurretik bikotekideek gazteleraz ezagutu badute elkar, familia osatu ondoren, (familia hizkuntza euskara izango dela finkatu arren, eta seme-alabekin euskaraz soilik egin arren) bikotekideen artean, askotan, gazteleraz egiteko joera nagusitzen da ohiturak eraginda.

- Familia osatzen duten kide guztiek euskaraz irakurtzeko **gaitasuna** izatea eragile garrantzitsua da. Norbaitek euskaraz ez badaki edota, euskal hiztuna izan arren, euskaraz irakurtzeko ezintasuna baldin badu, besteak beste alfabetatu gabe dagoelako, nekez egingo da euskarazko egunkariaren hautua.


- Euskaraz irakurtzeko **erraztasunak** ere badu eraginik euskarazko edo gaztelerazko egunkaria hautatzeko garaian. Ez dugu ahaztu behar erraztasuna gaitasunaren ondorengo maila dela. Gaur egun euskaldunez osatutako familietan seme-alabek gutxi-asko euskaraz irakurtzeko erraztasuna izan arren, guraso gehienek dezenteko ahalegina eginez irakurtzen dute euskaraz.

- **Asetasun maila** ere eragile garrantzitsua da. Kontsumogizartearen legea da: orain duzuna baino hobea aurkitzen baduzu, eros ezazu. Beraz, euskarazko egunkariak gaztelerazkoari tokia hartu nahi badio, irakurleari gehien interesatzen zaizkion informazio-arloetan sakondu behar du eta gaztelerazko egunkariak ematen diona baino gehiago eman behar dio.

- **Euskararen aldeko interesa eta jarrera**, edo bestela esanda, euskaltzaletasun maila, kontuan hartzeko eragilea da euskarazko egunkariaren hautua egiten dutenen artean. Dena dela ez

“Euskarazko egunkariak gaztelerazkoari tokia hartu nahi badio, irakurleari gehien interesatzen zaizkion informazio-arloetan sakondu behar du”

Patxi Saez



da eragile erabakigarria izaten, eragile bat gehiago besterik ez da. Hala ere, eragile hau indartsua denean, euskarazko egunkaria eros dadila ahalbidetu dezake baina gaztelerazko egunkaria ordezkatu gabe, alegia, biak erosi ohi dira, eta irakurri, berriz, era ezberdinean irakurtzen dira.

HIRU ILDO ESTRATEGIKO. Kontuak honela, euskarazko prentsak normalizaziorako bidean, hiru ildo estrategikoetan jardun beharko du: erabilera, transmisioan eta kalitatean.

- **Erabilera:** lehenik eta behin, batez ere, gazteengana bideratua behar du izan, gazteak erakarri behar ditu eta gazteak asebate behar ditu, hala, guraso euskaldunek, euskararen aldeko jarrerak eraginda, beraiek irakurri ez arren, seme-alabentzat erosiko dute.

- **Transmisioa:** gazteak euskarazko prentsa irakurtzen ohituz gero, gerora, beraien familia osatzen dutenean, euskarazko prentsa irakurtzeko ohiturari eutsiko diote eta, hala, euskarazko prentsaren transmisio katea sortuko da.

- **Kalitatea:** euskarazko prentsak jorrotutako edukiek gaztelerazko egunkariarenak baino asetahun maila handiagoa lortu behar dute informazioari dagokionez (herri informazioa, eskelak, jaiotzak, urtebetetzeak...), hala, motibazio instrumental horrek eraginda, poliki-poliki, informazio-atal jakin batzuk irakurtzeko ohiturak sortuko ditu (gurasoen artean ere bai).

Patxi Saez (Hizkuntza Normalizazio Teknikaria)

ZERGATIK EROSTEN DUT ‘EL DIARIO VASCO’?

E*l Diario Vasco* erosten duten azpeitiarrek atal honetara iritzirik bidali ez dutela-eta, Uztarriari egokia iruditu zaio haien bila joatea egunkari hura zergatik erosten duten jakiteko. Lau iritzi jaso ditu Uztarriak, eta ez ditugu haien izenak osorik jarri, nahi izan ez dutelako.

Ohituragatik soilik ez

Esan ohi da ohituragatik erosten dugula azpeitiarrok *El Diario Vasco*, eta hein handi batean hala da, gutako asko eta askoren pentsaeraren kontrako egunkaria izan arren. Orain urte batzuk *Egin* berritu zenean, hasi nintzen erosten, baina ez nintzen gustura sentitzen, eta atzera *DVra* itzuli beharra izan nuen. Izan ere, Azpeitiko karta, eskelak eta Reala begiratzen ditut batik bat, eta nik uste ondoen *DV*k ematen dituela atal horiek. Beraz, ez dut ohituragatik soilik erosten.

J. M. E. (enpresaria, 53 urte)

Realaz gehiago dakar

El Diario Vasco, ohituragatik erosten dut nik. Behin egunkari bat irakurtzen ohituz gero, besteak ez dituzu gustura irakurtzen. Baina ohituraz gain, Realaren inguruan berri gehien dakarren egunkaria da *Diario*, eta horregatik ere erosten dut. Besteek, Athletic eta euskal taldeen berri ere ekartzen dute, baina denena sartzean Realarentzat leku txikiagoa da, eta nik nahiago Reala. Gainera, eskela gehien ere *Diario*-n azaltzen dira eta horiek ere begiratzea gustatzen zait.

J. M. L. (administraria, 55 urte)

Betidanik erosi dugu

Ohituragatik erosten dut. Nire etxean beti erosi izan da *El Diario Vasco* eta azkenean ohitu egiten zara bere ataletara. Beste egunkari batzuk ere erosi izan ditut; *Gara* edo *Egunkaria*. Euskaraz leitzeko ohitura txikia dut eta niri *Egunkaria*-ko euskara ulertzeko zaila egiten zait. *DV* ondo antolaturik dagoela iruditzen zait, eta gehien irakurtzen eta gustatzen zaizkidan atalak Azpeitiko karta eta gizarteko atalak dira.

A. A. (etxeoandrea, 46 urte)

Besteak orokorregiak dira

Nik uste *Gara*, *Egunkaria* eta *Deia* orokorregiak direla, nazionalegiak, eta nik nahiago dut gertuko kontuez jakitea. Beraz, egunkari abertzaleek hobetu egin beharko luketela uste dut.

A. A. (ikaslea, 25 urte)

Maite Segurola

Izarraitzpeko Sorginak-eko kidea

“Feminismoa oso gutxi hartzen da aintzat herrian”

Beste ‘sorginekin’ batera martxoaren 8ko ekimenak antolatzen ari da, oraindik ere herrian zeregin asko dagoela eta



Hamar urte bete ditu Izarraitzpeko Sorginak Emakumeen Taldeak. Hamar urte pasatu eta gero ere herrian emakumearen inguruan zeregin ugari egiteko dagoela uste du Maite Segurolak.

• **Azpeitian zein da emakumearen inguruan dagoen gabezia?**

Ez du ematen hamar urte daramazkigunik lanean, ikusiz feminismoa aintzat zein gutxi hartzen den gauza desberdinak egiteko, jenero aldagaia ez da kontutan hartzen azterketak egiteko, Udalak hartu ditu konpromiso pila bat eta hor gelditu dira. Kontzientziarioa falta da, eta konpromiso politikoa azken finean. Berdintasuna eskatzen den mailatik benetako berdintasun baterako pausoak eman behar dira. Interes falta dago eta feminismoa bigarren mailako borroka bezala hartzen da. Eta berez, feminismoa borroka denetan dago.

• **Kontzientziaroko zer egin behar da?**

Emakumearen aldagaia benetan kontuan hartzea beharrezkoa da edozertan, gero neurriak hartzen hasteko. Lehenengo desberdintasuna atzeman behar da, desberdintasunen aurka egiteko, eta badirudi Azpeitian ez dugula jabetu nahi desberdintasun hori badela.

• **Hamar urteren ondoren, taldean hausnarketarik egin al duzue bilakaeraz?**

Aurten hasi gara, konturatu garenean taldeak hamar urte bete dituela. Baina orokorrean ez dugu igarri aldaketa handirik jendeak kontzientziario maila handiagoa duela esateko.

• **Baina emakumea eta bere egoera ez al da ezertan aldatu urteotan?**

Errealitatean ez da ezer aldatu. Azpeitian bertan hainbat enpresatan emakumeak ezin du lanpostu guztietan lan egin; ziur idazkari bezala baietz, baina beste postu batzuetan ez. Oraindik *txip* aldaketa hori ez da eman, ez lan munduan eta, hor bezalaxe, ez beste zenbait arlotan.

Nerea Uranga



AMAIÁ TABERNA

Pintxo bereziak eta giro jatorra



Urritzkina, 943 150472 ♦ Erdi kale, 13

Beloki
 Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
 AZKOITIA
 Jose Artetxe, 21 Tel.: 943 151392
 AZPEITIA



EDUARDO BERASATEGUI

Harategi eta Zerritegia
 Euskal Herriko Haragirik Ozenal

San Inazio Kaleko 12an
 Urrut. 943 81 14 98



bertako okela

HARZUBIA, 26 D
 TEL. 81 60 25
 ETXEKOA 15 00 03
 AZPEITIA



Harategi
 Especializatua

Arana Kalea, 14
 Urrut.: 943 81 1015



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA

ETXEKO URDAIKIA

FORU HIBILBIDEA, 4

TFNOA. 81 15 94

AZPEITIA



KALITATEZKO
 HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBALA, 8
 TFNOA.: 943 811671



udal erabakiyek

Udaletzeko ordezkarien udalbatzak Sindikatu Zaharrean egingo dira

Udaletxean igogailu berri bat jartzen ari direla eta, Udaleko zenbait zerbitzu Sindikatu Zaharrean jarrita daude, lanak ari diren bitartean. Lanak sei hilabete iraungo dutela aurreikusi du Azpeitiko Udalak. Hileroko ohiko udalbatzak ere Sindikatu Zaharreko lehenengo solairuko areto batean egingo dira. Horretarako, aretoa aldi baterako udaletzeko ordezkarien batzarrek egiteko moldatu da.




Udalbatza, Sindikatu Zaharrean egiten. / NEREA URANGA

Patxi Altunaren artikulu bilduma argitaratuko da

Nerea Uranga / Patxi Altuna euskaltzain oso eta jesuita azpeitiarrak argitara emandako artikulu batzuen bilduma prestatzen ari dira Esther Zulaika eta Elixabete Perez Gaztelu EUTGko irakasleak, Uztarriak jakin duenez. Guztira 30 bat artikulu biltzeko asmoa dute, eta apirila inguruan argitaratuko dela uste dute egileek. Bilduma horrek bi atal izango ditu: bata *Klasikoak* eta bestea, berriz, *Jesuitak*. Esther Zulaikak Uztarriari esandakoaren arabera, *Klasikoak* atalean Patxi Altunak Etxeparez, Oihenartez, Larramendiz eta Mendiburuz idatzitakoak sartuko dituzte. Eta *Jesuitak* atalean, berriz, besteak beste, Olabideri, Jose Ignacio Aranari eta Patxi Etxeberriari buruzkoak jasoko dituzte.

Ez da hori azpeitiar euskaltzain osoari buruzko aurtengo liburu bakarria izango, Uztarrria Kultur Koordinadora haren liburu biografikoa prestatzen hasi baita. Hain zuzen, Josune Etxeberria hasi da informazioa biltzen, lehendabizi Patxi Altunarekin berarekin, eta Uztarriak azaro aldera argitaratuko du biografia. Aurretik, apiril aldera, Imanol Eliaasi buruzkoa, Mailo Oiarzabal egiten ari dena. ●



Patxi Altuna. / UZTARRIA

Joseina Etxeberria

gurien...

irratia esataria

«Disko jaia irratia ezagutzera eramateko era ona da»

Nerea Uranga / Joseina Etxeberria urtarillaren 18an Euskadi Gaztearen disko jaietan izan zen, Frontoi Txikin, musika jartzen. Jendea dantzan jartzeko gogo bizian gerturatu zen Azpeitira, horrelako jai baten lehenengo proba baitzen.

● Nolatan era honetako musika ekitaldiak antolatzen?

Kilometroetan-eta deitu izan digute, eta oso harrera ona izan dute. Orduan, proba, jaietan egitea aurreikusi genuen, irratia erakusteko eta ezagutzera emateko era ona da. Bestetik, plaza giroa pixka bat galdu dela-eta, hori suspertzeko modua liteke.

● Azpeitian kilometrotan izan al zineten?

Bai, orduan Goming-ekoekin izan nintzen musika jartzen. Euriagatik furgoneta barrutik gauza labur bat egin genuen. Baina hark eta honek ez daukate loturarik.

● Eta giroa nolakoa izan zen Azpeitian?

Orduan beste musika estilo bat jarri nuen. Talde rockero asko zegoen eta ni han bat-batean elektronikoarekin hasten banintzen...

● Azken formula honetan nolako musika jartzen duzu?

Une honetan gehien dantzatzeko den kantutak jartzen ditut, kilometrotan-eta bezala, jendea mugitzen duena. Jendeak Su ta Gar eskatzen du, edo beste talde euskaldun bat, edozein, eta jarri eta *apalankatuta* gelditu ohi da. ●

“ Plaza giroa suspertzeko, onak izan litezke Frontoi Txikiko moduko saioak”



uztarrria

Loiola aldeko Azkune 21. lur eremua hiritartzearen tramitazioa abiatu da

1992. urtean Azkune 21. lur eremua hiritartzea Gipuzkoako Foru Aldundiak denboraldi baterako bertan behera uztea erabaki zuen. Baina, denboraldia luzatu egin dela eta, berriro eremu honen hiritartze tramitazioa abian jartzea erabaki zen otsaileko Udaleko ordezkarien ezohiko udalbatzan. Erabaki honek EAJko eta EAko zinegotzien aldeko botoa jaso bazuen, eta Batasunak ezezko botoa eman zuen.

Udalak kultur taldeek diru laguntza eskaerak egiteko epea ireki du

Azpeitiko Udalak herriko kultur taldeek 2002. urterako diru laguntza eskaera egiteko eskaera epea ireki du, eta martxoaren 25ean amaituko da. Diru laguntza eskaera egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa honakoa da: taldearen datuak, taldeko arduradunaren datuak, taldekideen izenak, taldearen helburuak, 2002. urterako plangintza eta aurrekontua, eta 2001ean Kultura Batzordetik jasotako diru laguntzaren garbiketa.

pertsonajie



Juanito Bikendi

Inauteri festetako mozorro egunean, astelehenean, helduen mozorro sariak banatu zirenean, sari berezi bat eman zion Udalak Juanito Bikendiri. Inauteri jaietan jasotzen duen bigarren saria du hau Bikendik, lehen kaldereroek ere ohorezko kofrade izendatua baitzuten. Eta Inauteri aurreko

asteburuan kalderero jantzita atera zen konpartsan. Herrian ezaguna da Juanito Bikendi, honek urte askoan antzerki lan ugarian parte hartu izan baitu. Judas ezizenez ere ezagutu izan da hainbat urtetan, berak antzerki lan batean paper hori egin izan zuelako. Gizon umoretsua da Bikendi, eta sariak merezi dituena, dudarik gabe; azkena bezalakoa, esate baterako. ●

zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?



ERANTZUTEN EPEA: Martxoak 18 (astelehena)

HELBIDEA: Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerrean; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

AKATSA ADIERAZI (idatziz edo boligrafoz):

IZEN-ABIZENAK:

TELEFONO ZENBAKIA:

IRABAZLEARENTZAT SARIA: lone-Maikar estetika zentruan zerbitzu bat.

AURREKO ARGAZKIYUE...



...ETA SOLUZIYUE



IRABAZLIE: Koro Nazabal



Koro Nazabal izan da 26. garailea. Kimetz lleapaindegian zerbitzu bat irabazi du, baita Uztarriaren elastikoa ere. Argazkian, Koro bera —eskubian— eta Jabier Jauregi Kimetz lleapaindegikoa ageri dira.

otsaileko bi irudiyek



NEREA URANGA

SOKAMUTILA ESKULTURA. Aurtengo Inauteri jaien barruan, Elegante Egunez, Jabier Iraeta eskulturgile azpeitiarrak sokamuturrari buruz egindako eskultura jarri zen Santiago kalean. Iraetak lehen egurrean egin zuen eskultura, brontzean eginda orain eta kalean jarri da. Eskulturaren inaugurazioan lehenengo eta oraingo sokamutilak elkartu ziren, udal ordezkari batzuez gain.

Hiru salaketa sartu dira Txikiteo Elegante eguneko gertakariak direla eta

Idoia Mendizabal / Inauterietako igandean, Txikiteo Elegantean, Jose Mari Bastida alkatea, lagunekin eta senideekin zela lau gazte mamuz jantzita gazte lokalaren aldeko eskaria egitera hurbildu zitzaizkion, eta iskanbila sortu zen. Handik

aurrera gertatutakoaz batak zein besteek azalpen ezberdinak eman dituzte. Alkateak deitutako bozeramaileen batzordeak EAJ-EAK onartutako idatzia atera zuen. Batasunak ez zuen idatzia onartu, eta bere aldetik beste bat atera zuen.

Eta Azpeitian Gazteok Zer?! taldeak ere prentsurrekoak eskaini zuen.

Bestalde, komunikabideetan ere zeresanik eman zuen gaiak, bai prentsa idatzian, bai telebistan, bai irratian.

Igandeko gertakaria dela eta, hiru salaketa sartu dira Ertzaintzan: bat alkateak, irainak eta mehatxuak jasan omen zituelako; eta bi gazteek, Iker Salegik bat, botilarekin buruan jo omen zutelako (zazpi puntu behar izan zituen zaurian), eta Eneko Iburgurenek bestea, alkateak ezpainean zauritu omen zuelako.



EAJ eta EA, prentsaren aurrean.

ODRIOZOLA ARDOAK

Julio Urquijo, 18
Tfnoa: 8500 11
AZKOITIA

Iñaki Azpiazu, 5
Tfnoa: 15 13 16
AZPEITIA

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdia:
943 15 16 40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Otamendi
Bitori Denda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa
zuri esker

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira

81 53 35



AGIRRE ETA LIZASO KOFRADE. Aurtengo inauterietan, kaldereroek ohorezko kofrade izendatu zituzten Joxe Agirre eta Joxe Lizaso bertsolariak. Ardo Zaleak elkartearen afaria egin ondoren kalejiran atera ziren, baita berstolariak ere.

esanak

Alde ezberdinen hitzak

- **UDALA.** Azken hilabeteotan alkateak eta EAJ-EA koalizioko zinegotzi batzuek herriko pertsona batzuek "mehatxuak eta irainak" jaso dituztela jakinarazi dute. "Irain eta eraso" hauek jasaten dituztenei elkartasuna adierazi die EAJk eta EAK, eta gertaera hauek gogor salatu dituzte. "Ez dugu inolako presiorik onartuko eta irtenbiderako elkarrizketaren bidea defenditzen dugu".
- **AZPEITIAN GAZTEOK ZER?!** "Mamuak gazte lokalaren aldarrikapena era baketsuan egiten duten mozorroak" direla esan du. Eta Azpeitiko alkateari "eztabaida publiko bat egiteko prest" daudela. Txikiteo Eleganteko gertaeren eta Azpeitiko gazteen inguruan hitz egiteko ere prest azaldu da Gazteok Zer?! taldea.
- **BATASUNA.** "Gazte lokalaren auzia aspalditik datorren gaia" da, eta alkateari eta udal gobernari "gazteekin biltzea eta elkarrizketarekin egoera bideratzeko" eskatu dio Batasunak.



Xabier Euzkitze. / Uk

“Batxilerra bukatu nuenean erabaki nuen burtzikari bezala ibilbide profesionalagoari ekitea”

Igor Etxaniz 'Kinttela' (burtzikaria)

IRENE ALTUENA

Lore Sortak
Koroak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
Zerbitzua Dugu

Tel.: 943 81 51 87
Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Amenabar

DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoj nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

HITZEIN
HITZEIN
HITZEIN

Izaskun Lizarralde

LOGOPEDIA

630 133 286 - 943 157 417
Urbiltarte 3, auzunea 20730 AZPEITIA

kitzika joyería

Brilanteak - Urre Zuria eta Oria - Festina Urrea

Pastorkua Tabernaren ondoan
Jose Artetxe, 13 Tel. 943.15.76.13 AZPEITIA

AIZPURU

AUTOAK

PEUGEOT

Landeta Auzoa - Urrut: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

DIEGO GARCIAREN OROIMENA

Azkoitiar korrikalari handia hil zela lehen urteurrena gogoratuko da aurten, eta haren omenez eskultura jarriko da martxoaren 30ean; maratoi erdia ere korrituko da



Nerea Aranburu

Hilabete honetan beteko da, hain zuzen ere, urtebete Diego Garcia hil zela, iazko martxoaren 31n utzi gintuelako; Azkoitia-Azpeitia maratoi erdirako entrenatzen ari zela, bihotzekoak jota hil zen Loiola inguruan. Urteurrena gogoratzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte haren lagunek. Horien artean, bi ekitaldi aipagarri egingo dira martxoaren 30ean, larunbatean alegia. Alde batetik, goizean Diego Garciaen

eskultura jarriko dute, Diego bera hil zen tokiaren parean —Loiolan—, eta, bestetik, arratsaldean Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia korrituko da.

Xebas Larrañaga azkoitiarra izan da egun horretan jarriko den eskulturaren egilea. Lan hori egitearen ideia orain denbora dezente sortu zen; Diego Garciaen oroimenez zerbait egin beharra zegoela ikusten zuten eta hortik atera zen haren oroimenezko eskultura egitea. Egilearen esanetan, “eskulturak Diego Garciaen beraren neurri errealak ditu, tamaina

naturalean egina baitago lan guztia. Une honetan 1,71 metroko altuera du. Une honetan diot, zeren, gero eskultura brontzera pasatzen denean, baliteke pixka bat neurria txikitzea, zentimetro batzuk galdu egingo lituzke eta. Baina, hala eta guztiz ere, nahiz eta zerbait galdu, gutxi gorabehera altuera hori izango du eskulturak”.

Lana egiteko material desberdinez baliatu da Xebas Larrañaga azkoitiarra. Prozesu ezberdinetatik igaro izan da eskultura eta prozesu bakoitzean material desberdinak erabili ditu. “Lehendabizi burdinare-

aurtego maratoi erdia

- **EGUNA.** Martxoaren 30a.
- **IRTEERA.** Arratsaldeko lauretan aterako da, Azkoitiko eliz ataritik.
- **IZEN-EMATEA.** Aurtengo berrikuntzetako bat izenematea internetez egiteko posibilitatea da. Martxoaren 25a iraungo du eta hamar euro ordaindu beharko dira parte hartzeko.

BULEGOETARAKO EKIPAMENDU OSOA



IKASI
MOBELTEKNICA

**MANPARAK
ZABIAK
LURRAK
ALTZARIAK
BULEGOETARAKO MATERIALA**

Zure lanorduk arintzen ditugu




kin egin dut eskultura guztiaren estruktura. Behin hori bukatuta, gero burdin horri eutsi ahal izateko, bustina erabili dut. Bustinarekin bukatu ondoren, orain eskultura guztia brontzera pasatuko dute langile batzuek, eta horrek ere bere lana eskatzen du”.

Eskultore azkoitiarraren lana, jendaurrean, martxoaren 30ean egongo da ikusteko moduan, orduan jarriko baitute lana Azkoitia-Azpeitia bitartean, Diego Garcia heriotzak harrapatu zuen lekuan hain justu ere. Oroimena geldituko da.

Ander Garate 'Fliki'

Auto gidaria



“Oraingoz, utzi egingo dut, baina harra hor dago eta...”

Gazte-gaztetatik du motorra afizio, kart-etan hasita; orain lasterketak alde batera uztea erabaki du denboraldi baterako

Ander Garate herriko auto gidari bat da. Kart-etan hasi zen eta auto-krosetan, igoeratan eta rallyetan parte hartu izan du. Orain denboraldi baterako auto lasterketak alde batera uztea erabaki du.

● **Nondik datorkizu motor zaletasuna?**

Gaztetan lagunak joaten ginen auto lasterketak ikustera, aita konbentzituta. Gustatu egin zitzaidan, eta kart-ak merkeenak zirenez haiekin hasi nintzen. Azpeitian kart lasterketetan hasitako lehenengo naiz.

● **Zergatik utzi dituzu auto lasterketak?**

Une honetan taberna eta familia ditut. Lasterketetan parte hartzeko entrenatze-eta joan behar izaten da, eta ez nintzen denera iristen. Nahiago dut, oraingoz, lasaiago hartu eta geroago berriro hasi, harrak hor jarraitzen baitu.

● **Gerora begira zer asmo duzu?**

Ikusi egin behar. Rallyak-eta pixka bat garestiak dira. Aurrekontua lortuz gero, zirkuitoak probatzea gustatuko litzaidake.

● **Azpeitian nolako afizioa dagoela iruditzen zaizu?**

Azpeitian eta Euskal Herrian izugarritzko afizioa dago. Gainera, Azpeitian auto gidari onak daude. Baina dirua da arazoa. Espainiako Txapelketan irteteko diru asko behar da. Iñaki Alberdik eta Jon Agirrek, dituzten titulu guztiekin, ezin dute dirurik aurkitu txapelketa hauetan parte hartzeko.

● **Zein izan da lortu duzun garaipenik handiena?**

Kart-etan bigarren-eta ibiltzen nintzen. Auto-krosetan Euskadiko Txapelketan bigarren gelditu nintzen eta rallyetan, berriz, sailkapen orokorrean zazpigarren postu inguruan bukatzen genuen. Gure mailan bigarren-eta ibiltzen ginen, Asier Lasaren atzetik beti.

● **Zein izan da gustuena ibili zaren lasterketa, eta non gustatuko litzazuke parte hartzea?**

Espainiako lur-gaineko auto lasterketetan, Seat Ibiza batekin irten nuen. Baina zirkuitoak ere probatu nahi ditut. Gainera, auto jakineko lasterketa hauetan diru laguntzak handiagoak izaten dira.

● **Lasterketetan dena ez da auto gidariaren esku izaten...**

Laguntza handia izan dut Luis Astigarraga Etxetxo-ren eta Iñigo Odriozola Uiti-ren aldetik. Hauek lanetik irtendakoan autoa konpontzen-eta laguntzen zidaten. Lagun talde honengatik izango ez balitz, ezingo nukeen lasterketetan parte hartu.

● **Zer dauka abiadurak?**

Adrenalina izango da... Abiadura sentitu egiten dugu, baina kolperen bat hartuz gero, hori ere sentitzen da. Abiadura handiegian ibiltzen garela kritikatzeko gaituzte. Inguruan zirkuitoren bat egongo balitz autoekin ibiltzeko, jendea hara joango litzateke eta errepidean makalago ibiliko liriateke. Ni auto lasterketetan hasi nintzenetik errepidean makalago ibiltzen hasi naiz.

Ion Aranburu



Azpeitiko dendariak, zuen ondoan, zuen zerbitzura

CICLOS BENI

Loiolabide Tel. 150629

LARRAÑAGA KIROLAK

Arana, 3 Tel. 811365

ODRIOZOLA HARATEGIA

Arana, 14 Tel. 811015

EGOKI JANARIAK

Barrenetxe, 8 Tel.815490

ZABALA HARATEGIA

Arrabal, 8 Tel.811671

NEREA MERTZERIA

Arrabala Tel.812862

ZOKOA ANDREEN JANTZIA

Arrabala Tel.815056

ARKUPE KIOSKOA

En. Nagusia Tel.815207

AGIRRE OPARIDENDA

Erdi Kale, 1 Tel.811325

FURUNDARENA OINETAKOAK

Erdi Kale, 9 Tel.811143

URIA ALFONBRAK

Erdi Kale, 29 Tel.812337

AMENABAR JANARIAK

Etxe-alai, 3 Tel.150065

SAN SEBASTIAN HARATEGIA

Foru Ibilbidea, 4 Tel.811594

EGAÑA GOZOTEGIA

Goiko Kale, 10 Tel.811885

JAKA JANARIAK

Harzубia, 19 Tel.816549

ANDONI FRUITUDENDA

Harzубia, 29 Tel.812502

AITZAKI KIROLAK

J.A. Agirre, 4 Tel.150738

OTOLA KINKILADENDA

J.A. Agirre, 7 Tel.811366

SANTI LAZKANO KIROLAK

J. Artetxe, 1 Tel.811650

BALENCIAGA

J. Artetxe, 10 Tel.813400

ERROTAUNDI OKINDEGIA

Euskal Herria

MARTZALA OINETAKOAK

Olazko Amaren Plaza

BELOKI HARATEGIA

J. Artetxe, 21 Tel.151392

ARROSPIDE OINETAKOAK

Loiolabide, 1 Tel. 811914

EMAITZ LURRINDENDA

J.A. Artetxe, 11 Tel.813345

ORDULARI BITXIDENDA

J.A. Artetxe, 10 Tel.815244

ARANTXA HAUR JANTZIAK

J.A. Artetxe, 8 Tel.812429

BABESA GAZTE MODA

Urbitarte, 9 Tel.151369

IRIS MERTZERIA

La Salbe, 11 Tel.813298

IRATXO JOSTAILUAK

La Salbe, 24 Tel.150530

ZALDIKO LURRINDENDA

La Salbe, 15 Tel.151275

ICIAR ILEAPAINDEGIA

Loiolabide, 19 Tel.810217

ARADI KIROLAK

Olazko Amaren Pl., 3 Tel.150290

ZURI BELTZ JANTZIAK

Olazko Amaren Pl., 10 Tel.816656

MATXIN ZESTOAK

Pablo VI, 39 Tel.810116

UKABI ORDENAGAILUA

La Salbe, 39 Tel.150101

LUR LORA DENDA

Santiago, 11 Tel.150085

URKE ARGAZKIAK

Urbitarte, 4 Tel.151287

UROLA BIDAI AGENTZIA

Arrabal Tel.150804

M. GRAL . SEGUROS

Pablo VI, 5 Tel.151649

COOP. SUKALDEAK

Arana, 7 Tel.812309

URBISTONDO MARGOAK

La Salbe, 35 Tel.815781

SOINU ELEKTROGAILUAK

Okerra, 11 Zestoa Tel.147938

DUNPI JOSTAILUAK

Erdi kalea, 3 Tel.151890

Foru ibilbidea, 3 Tel.813969

ONDORENGOEI KONTATU BEHARREKOAK



Zahartzen ari naiz. Azpeitiko kaleetan ibiltzen diren gazte-saldoen ondoan, ni beste belau-naldi batekoa naiz, dudarik gabe, baina horrek ez nau akonplejatzten. Hor sartzen dut gazte artean neure muturra, onartzen nauten bitartean, eta gauza interesgarri asko ikusten ditut haiengan, haietako batzuegan.

Martxoan gaude, Pasaiako enboskadan hil zituzten autonomoei Azpeitian omenaldia egiten zaien hilabetea. Duela urte batzuk omenaldirako antzerki bat prestatzeko deitu zidaten gazte horietako hainbatek. Enboskada hura benetan (eta ez bertsio ofizialaren arabera) nola gertatu zen antzeztu nahi zuten, eta haiekin bildu nintzenean gure arteko leizea ikusi nuen aurrean. Leize informatiboa zen: nik bizi izandako garai haiek ez zituzten bizi izan gazteok, eta niretzat gauza jakinak eta argiak zirenak haientzat ezjakinak eta ilunak ziren.

Antzerki-obra idaztearekin batera, ni nolabaiteko transmisore sentitzen hasi nintzen gazte haiekin. Enboskada kontatu nien, han bizirik atera zen bakarrarekin nik izandako harremana, garai hartako giroa, Jaurlaritzaren jarrera, HBren jarrera, autonomoen berezitasunak eta abar. Gainera, lekukoarekin garaitsu hartan argitaratu nuen elkarrizketa pasatu nien, fotokopiatuz ibili zuten, eta egun batean, gazte haietako baten etxera joanda, bere gelako horman jarrita zeukala ikusi nuen.

Gazte haiek ez zekiten gertaerak azpeitiarren bihotzean zer-nolako zirrara sortu zuen; bi herritarren gorpuak ekarri zituztenean, aurpegiak eta dena balaz zulatuta, nola markatu gintuen asko eta asko.

Entsaio haietan inoiz baino garbia-go sentitu nuen elkarren artean hitz egin beharra dagoela, belau-naldi ezberdinen artean komunikatu beharra dagoela. Guk geure ezaugarriak galtzen ditugula inori esaten ez badizkiogu, eta gazteak agian aberasteko adina kontu interesgarri izan dezake-

gula geure baitan. Esaten ausartzea da kontua, adieraztea.

Herri bat bertan gertatu diren istorioez eta kontakizunez beterik dago. Herri horrek bere nortasuna babesteko duen jantzia hori da. Baina istorio guztiak ez dira samurrak. Gizartearen ideologia nagusiaren aurka borroka egin zuen jendea bazterrerara uzten saiatzen da boterea. Eta jende horren istorioak kontatzeko lekua irabaztea lorpen handi bat da, lehenengo geure buruarentzat eta bigarrengo herri berberarentzat.

Beti izan dira amableagoak santuen bizitzak, kiro-larienak, mendizaleenak, misiolarienak. Baina jendeak jakin behar du autonomoak zer izan ziren, zer pentsatzen zuten, nola herriko gazterik finenak, lantegian langileenak, lagunzaleenak eta kritikoenak borroka hartan hasi ziren, bizitzako lorpen arruntak alde batera utzita gizartea aldatzeko gehiago eman zezaketelakoan.

Jakin behar du Kike nola ametrailatu zuten, Paterra nola atera zen kamioi azpitik oihuka jendearen arreta bereganatu nahian Poliziak jo eta bertan hil ez zezan, Pasaiatik nola ekarri zituzten Pelitxo eta Kurro, armarik atera gabe 80 poliziren enboskadan tiroz frejituta... eta beste gauza asko.

Ez dut batallitak kontaktzen dituen aittona bihurtzeko asmorik. Baina gauza horiek jakiteak zentzua ematen dio herri bati, hobeto ulertzen dira handik 20 urtera bertan, oraindik ere, gertatzen diren hainbat gauza. Eta Azpeitian batez ere.

Transmisioa oso garrantzitsua da. Horregatik, gaurko gizarte hau hobea, justiziazkoagoa eta berdinzaleagoa izan zedin borroka egin zutenen istorioak kontatu egin behar ditugu, zaharragoetatik gazteetara, eta gazteetatik gazteagoetara. Istorio horiek gure bizitza aztertzen laguntzen digutelako. Istorio horiek gabe, Azpeitiaren historia inoiz ez da osatuta egongo.



HILEKO GALDERA. Azpeitian egundoko maila dago autoetan, arropetan, oporretan, etxe berrietan, kiroletan... nolakoa ote da maila intelektuala?

www.uztarria.com

Interneten sartzean, hasieratik www.uztarria.com azaltzeko pausoak

Uztarriaren datuak

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre (Azpeitia).
 Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58
Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Web orria:
www.uztarria.com

Posta kutxa: 227, Azpeitia
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.800 ale
Lege gordailua: SS-860/2000

aldizkari honen laguntzaileak



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila

Uztarria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna



- o Agenda
- o Albisteak
- o Eztabaidak
- o Herri aldizkaria
- o Inkestak
- o Laguntza
- o Posta zerrenda
- o Publizitatea
- o Taldeak

KIROLAK: Erremonteko Binakako Txapelketa Zeb Iriartek irabazi zuten

Uztarria.com - Gaur, 2002/02/22 11:03
 Pasa de larunbatean, Galarretan jokaturako finalean bigarren hau azpeitiarra, Altunak a-Eizagirri 37-40 ir Eizagirrek ia azken unea arte lortua zuten txapela, b txanpan hutsak egin eta galdu egin zuten. Azpeitiar finalean Joxe Manuel Iriarte animatzen.

UDALA: Dirulaguntza eskaria egiteko epea mar da.

Herriko kultur taldeek dir eskaria egiteko epea aste zabalduko da

NETSCAPE COMMUNICATOR programa edukiz gero:

- Programa zabaldu.
- Edit-Preferences.
- Category-Navigator.
- Navigator starts with-Home page.
- Home page location: <http://www.uztarria.com>.
- OK.
- Hurrena Internet zabaltzean, lehen pantailan Uztarriaren web orria azalduko da.

INTERNET EXPLORER programa edukiz gero:

- Programa zabaldu.
- Edición-navegador de web.
- Ventana del navegador.
- Página principal.
- dirección: <http://www.uztarria.com>.
- OK.
- Modu honetaz ere, hurrena internet zabaltzean, lehen pantailan Uztarriaren web orria azalduko da.

albiste txikiyek Webguneko albisten harpideak ere gehituz doaz

Uztarriaren webguneko harpideak ere gehituz doaz. Dagoeneko 98 harpide ditu Uztarriako web orriak. Webgunearen ezkerrean posta elektronikoko helbidea idatzi eta harpidetu-n klik egin bada, egunero-egunero Uztarriaren webgunean sartzen diren albiste guztien titularrak postaz jasotzeko aukera ematen du.

544 bazkide ditu Uztarriak

Uztarria bi urteotan bere lekua hartzen joan da herriari eta baita kanpoan bizi diren azpeitiarren artean ere. Datuek garbi erakusten dute, gero eta gehiagok ematen dioteko Uztarriaren komunikazio proiektuari. Hala 544 bazkide ditu dagoeneko. Kopuru honek Uztarriaren sorreran egin dako aurreikuspenak gainditzen ditu. Azken bi hilabetetan 510 izatetik 544 izatera pasatu da; 34 horietatik gehienak harpidedunak ziren lehen.

544 bazkide gara jada

EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 21,04 euro (3.500 pezeta) / Bestela harpidedun izan zaitezke, doan (kontu korrontearena ez beste guztia bete)

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

HERRIA:


KODE POSTALA:

TELEFONOA(K):

POSTA ELEKTRONIKOA:

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak):

Julian Elorza Hiribidea, 4, 2. ezkerre • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com



KAITOK KAMERA UTZI DU

Argazkilaritzan aurreneko, gero bideoarekin eta, azkenik, Kaito Telebistarekin, horrela ibili da Nicolas Oteiza 'Kaito'; orain erretiroa hartu du

Nerea Uranga

Kaito Telebista, herri mailako telebista emisorea, sortzeko ideari 1992an heldu zion Nicolas Oteizak. Pausoz pauso eta urtez urte, Kaito Telebista pixkanaka indartuz eta ezagutzera emanez joan da, lehenengo Azpeltia mailan eta geroxeago, berriz, 1995ean, Azkoitian. Hamar urte pasatu ondoren, Kaito Telebistaren lekukoa Nicolasek Urtzi semeari pasatuko dio. Azkenaldian, ebakuntza gogor bati aurre egin behar izan dio Nicolasek eta orain kamera eta muntaketa lanari utziko dio. "Erretiroa hartu eta Kaito Telebista Urtziren esku utziko dut. Dena den, beti ere eskuren bat botako diot, batik bat administrazio kontuetan", esan dio Uztarriari.

Irudien munduan aitaren eskutik hasi zen Nicolas, Plaza Txikian aitak zuen argazkilaritza negozioan hasi zenean. Gero, 1985. urtean irudiak bideoan hartzeari ekin zion. "Ezkontzak bideoz grabatzeko aukera ikusi nuen, garai hartan modu honek etorkizuna zuela ikusten baitzen. Heme-

zortzi kilo pisatzen zituzten kamera eta magnetoskopio bat erosi nituen. Garai hartako zintek hogeiturokoak ziren; hau da, gehienez zinta bakoitzarekin hogeituroko minutu graba zitezkeen. Beraz, zezenketa batera zazpi edo zortzi zinta eraman behar izaten ziren". Etxeetan eta bideoa sartzen hasi zeneko garaiak ziren, eta Nicolas orduko kamerarekin grabaketak egiten hasia zen. "Justu, 1985eko abenduan hasi nintzen grabaketak egiten, orduan argazkia eta bideoarekin, biek aritu nintzen. Eta, jakina, danborrada garaian eta ezin ba biak batera egin; horregatik urte batzuetako danborradak grabatu gabe daukat. Gero, 1988an, bihotzeko ebakuntza izan nuen eta 1991. urtea arte bideoaren kontua alde batera utzita izan nuen".

Baina 1992an telebista emisorari heldu zion gogoz eta Kaito Telebista, herrirako telebista bat egitearen ideiarekin abiatu zen. "Antena nire etxean neukan, balkoian jarrita. Hasieran asteartetan eta ostegunetan soilik emititzen nuen. Eta gero niretzako salbazioa izan den aparatua erosi nuen: *repeat*-a. Hau asmatu zen egunean, Kaito salbatuta gelditu zen. Nik oraindik

repeat-arekin emititzen jarraitzen dut. Honek behin zinta bukatzen denean, azkar-azkar jasotzen du eta bi minuturen bueltan zinta jasota dauka, berriro botatzen hasteko".

Gaur egun antena Azkoitiko baserri batean jarrita dauka. "Lehen etxean neukana, Azkoitiko baserri batera pasatu nuen. Baina Kaito Telebistaren antena makila bat da, besterik ez, jendeak uste baitu, ETBkoak edo TVEkoak bezalako antena bat dudala. Kaito Telebistaren bitartekoak, bai teknologikoak eta bai materialak, oso arruntak dira. Hori bai, pixkanaka gauzak izorratu baldin badira konpondu eta hobekak eta berriagoak sartzen saiatu naiz. Jaso ditudan diru laguntzak, horretan erabili ditut, behar materialetan eta inbertsioak egiteko".

Haren etxeko gela batean du telebistako edizio gela, eta bertatik kontrolatzen du Kaito Telebistan zer ari den emititzen. Baina orain dela bost urte arte, baserrira bertara joan behar izaten zuen emisiozinta aldatzera. "*Microhondas* deitzen den aparatua hori erosi nuen arte baserrira joan behar izaten nuen zinta aldatzera. Hiru



LOKALA ETXEAN.

Kaito Telebistak edizio gela bere etxean du; gela bat du egokituta apataru guztiekin. Artxi-boa bera ere gela berean du, eta orain arte grabatutako guztia apaletan pilatuta du. Orain aldameneko etxebizitza alokatu du, eta bertan zuzeneko programetarako platoa edo grabazio gela antolatuko du.

egunetik behin baserrira joan eta zinta aldatu ondoren, hiru egunetan zinta hori emititzen zen. Hasierak holakoxeak izan ziren”.

KAMERAREKIN KALEAN. Kamera sorbalda gainean hartuta ordu mordoak pasatutakoa da Nicolas kalean. Edozein ekitaldi dela, herriko edo auzoetako jaiak

direla, Kaito Tebista bere lekua hartzen joan baita. Dagoeneko lau mila ordu grabatuta ditu bideo zintetan. “Grabatu izan dudana guztia gordeta dut”.

Kamerarekin kalera grabatzera ateratzen zen lehen urteetan jendea ezkutatu egiten zen; jendea ohitu gabe zegoen telebista kamera bat inguruan izatera. “Baina dagoeneko jendea ohitu da. Gainera, inoiz ez

naiz indarrez ezer grabatzen aritu, inoiz ez ditut gauza arraroak grabatu edota inor irri-garri uztekotan aritu, inoiz zerbait horrelakorik grabatu bada, gero moztu egin da emititu aurretik, morboaren bila ez naizelako aritu lanean”.

Azpeitiko, Azkoitiko, Zestoako eta Errezilgo kaleetan hainbat une grabatu baldin baditu ere, urrutiragoko lurretan ere ibili da ▶▶

...zuk zergatik ez?

Martxotik aurrera asteroko programak Kaito TBn

Asteartetan kirolari buruzko programa egingo du eta ostegunetan, berriz, elkarrizketen zuzeneko saioa

Martxoaren 1etik aurrera, Kaito Telebistak proiektu berri bati ekingo dio: asteroko programazio bat jarriko du martxan. Kamera eta edizio lanetan Urtzi Oteizak jardungo du, eta harekin batera

kazetari bat ariko da programak zuzentzen.

Proiektu berrian, astero zuzeneko bi programa egitea aurreikusten du; bata asteartetan, kirolari buruzkoa, eta bestea ostegunetan, herritarrei egindako elkarrizketak jasoko

dituena. “Kirolari buruzko saioa egiteko, aurreko asteburuan kirol talderen baten partidua grabatuko dugu, Azkoitian edo Azpeitian, eta ondoren saioan taldekideak izango dira asteburuko kirol ekitaldiaren gorabeheren berri emateko”, dio Urtzi Oteizak. Zuzeneko saio hauetan herritarrek telefono deien bidez saioan dauden gonbidatuei galderak eginez parte hartzeko aukera ere izango dute eta bi saioak 20:30ean hasiko dira. “Lehen zuzeneko



Nicolas Oteiza Urtzi semearekin, Kaito

► herritarren pausoen segika. Herriko jubilatuekin eta Nuarbe sokatira taldekoekin atera da batik bat herritik kanpo. “Ni jubilatuen irteerak grabatzen nire kontura hasi nintzen. Autobusaren atzetik joaten nintzen autoz irteeraren bat zutenean, gero egunean zeharreko ibilerak grabatzen nituen. Bazkalondoan mahaiaren inguruan denen irudiak jaso eta horrelaxe hasi nintzen. Baina, garai hartan, ‘honek zer egiten du hemen?’ eta horrelakoak entzutera ere heldu nintzen eta utzi egin nion joateari. Baina gero, Udalekoek-eta animatu ninduten berriro jubilatuen irteeretara joatera. Orain, Kaito Telebista irteera hauetara ez bada joaten, faltan botatzen dute. Hala esan didate, gaixorik egon naizen azkenekoan, galdezka ibiliak direla badakit”.

Gernikarako eta San Ferminetarako urteroko jubilatuen irteerak ohikoak dira Kaito Telebistarentzat. Baina Nicolasek Euskal Herriko mugak ere askotan igaro ditu, kamera sorbaldan hartuta. Turista gisa joan zen aurrenekoz Nuarbe Sokatira Taldekoekin atzerira; turista moduan eta bidaia bere poltsikotik ordainduta joan zen Nicolas, baina “ez” zuen turismo askorik egin. “Nuarbekoekin joandakoan ez da turismoa egiteko denbora askorik gelditzen. Nik, aurreneko aldi hartan ederki ikasi nuen. Egun gutxi hartuta joan ohi dira eta tiralekuan zer grabatu asko izaten da. Ordudunik, Nuarbeko taldeak ordaintzen dit bidaia eta lanera joan ohi naiz, tiraldiak grabatu eta jarraipena eginez. Azkeneko atzerriko irteerara Urtzi semea joan zen, eta datorren urtean Hego Afrikara joateko

aukera dute eta ikusiko dugu zer egingo dugun. Bestela, Nuarberekin Ameriketako Estatu Batuetan, Holandan, Ingalaterran eta Suitzan izan da Kaito Telebista”.

HERRIKO TELEBISTA. Nicolasek herriko telebista, herrian gertatzen diren kontuekin eta herritarrekin beraiekin lotuta ikusten du estuki, eta ez herriko telebistaren programazioaren %90 kanpoko filmeeekin eta programazioekin osatuta. “Niretzako herri telebista batek herriko kontuak eman behar ditu, herriko kontuak soil-soilik; herriko berriak, herritarren inguruko berriak, elkarrizketak eta horrelakoak jaso behar ditu. Niri ez zait interesatzen zer pasatzen den Donostian edo Elgoibarren, niri Azpeitian eta Azkoitian pasatzen dena

interesatzen zait batez ere, informazio orokorraren berri gainontzeko telebista kateek ematen baitute lehen ere”.

Kaito Telebista emisoreak baditu berezko ezaugarri batzuk: jaiak edo ekitaldiak oso-osorik grabatzen saiatu izan da Nicolas, hasiera amaiera eta bilakaera osoa jasoz. Eta emititu ere hala emititzen du, dena jarraian, grabatuta bezalaxe. “Kaito beste emisoreengandik bereizten bada, zera da: Ni, kamararekin jasotzen aritu naizenean, saiatu naiz grabatzen, gero hori ikusten duena bertan egongo balitz bezala sentitzeko. Hau da, dena jarraian grabatzen dut, zarataren bat gertatzen bada, hori ere jasoz, oihuren bat badago tartean, hori ere grabatuz. Etxean dauden herritar horiek, agian une horretan kalera atera ezin duten horiek, gertatu bezala jaso dezaten. Sansebastianetako danborradan esaterako, hasieratik bukaera arte dena jasotzen dugu. Baina beste telebista kate batzuek laburpenak botatzen dituzte, eta osoa ikusteko aukerarik ez dute ematen”. Grabatutakoa behin eta berriro, egunean zehar emateari ere bere zentzua topatzen dio Nicolasek: “Batzuek egun osoz, besteak goizez edo arratsaldez egiten dute lan, eta batek goizez, besteak arratsaldez eta beste batek agian iluntzean edukiko dute telebista ikusteko aukera. Grabatutakoa behin eta berriro botatzen baldin bada, jende gehiagok izango du botatzen ari dena ikusteko aukera”.

Kaito Telebistaren diru iturriak, publizitatea, Azpeitiko eta Azkoitiko udalen diru laguntzak, eta enpresa pribatuen diru

“ Justu 1985eko abenduan hasi nintzen grabaketak egiten, orduan argazkia eta bideoarekin, biek aritu nintzen. Noski, danborrada garaian-eta ezin biak egin”

“ Jubilatuen irteerak grabatzen nire kontura hasi nintzen. Autobusaren atzetik joaten nintzen autoz irteeraren bat zutenean egunean zeharrekoa grabatzera”



aren edizio gelan.

saioa egiten genuenean beranduago izaten zen, baina jendea Goenkale ikusten egoten da, eta, beraz, errealak izan behar dugu dagoenarekin, eta horregatik orain zuzenekoak lehenago egingo ditugu”.

ZINTA BERRIA. Baina beste-lako saioak egiten joateko asmoa ere aurreikusten du Kaito Telebistak; hala nola, bi herrietako berriak ematearena. “Guri heltzen zaizkigun berriak emango ditugu, eta, gainera, astartetan Azpeitian eta larunbatetan Azkoitian egiten diren azoketako berriak jasoko ditugu. Baita Azpeitian hilaren hirugarren ostiraletan egiten den ganadu ferikoak ere”.

Bestetik, orain arte Kaito Telebistak grabatutako ekitaldiak,

bi egun osotan errepikatzen ziren. Baina hemendik aurrera egunero-egunero zinta aldatzeko asmoa du. “Egunero, grabazioen zinta 20:30ean aldatuko da; hau da, berria sartuko da, eta 24 orduz hiru orduko grabazio hori ikusiko da behin eta berriro. Gaur egun, gauzak asko errepikatzen diren sentsazioa badago, egunero aldaketarekin sentsazio hori kenduko da”. Zintan ordea, aurreko egunetako jai edota ekitaldietako uneak bakarrik ez dira emitituko; Kaitok artxiboan dituen irudiak ere emitituko ditu egunero programazioa beteko duten grabazioekin batera.

Bada, Kaito Telebistak proiektu honekin apustu indartsua egingo du, zuzeneko saioei lekua eginez.

laguntzak dira. “Telebista emisora batek diru laguntzarik gabe eta publizitatearekin soilik ezin du aurrera egin, konponketak direla, materiala dela edo beste edozer dela dirua joaten baita”.

Gaur egun, herri telebista kateen legearen inguruan ere jardun digu Nicolasek. “Emisora ez da ilegal, berez lege bat badagoelako 1995. urtea baino lehenagoko tokiko telebista kateak legeztatzen dituen. Baina kontuak nola-hala eta ahal diren moduan egiten dira”. Orainsu irrati digitala datorrela eta, 8. kanaletik 57. kanalera aldatu da Kaito Telebistaren frekuentzia, frekuentzia horretan leku bat hutsik aurkitu baitu. “Berez, eta legez, Udalak eman beharko luke frekuentzia, eta Udalak berak Eusko Jaurlaritzari eska-

tokiko telebistak

● **EROSTEKO ESKAINTZAK.** Herriko edo tokiko telebistak azken urteotan ugarituz joan dira herri eta leku ezberdinetan. Indarra eta lekua hartzen joan dira hedabide hauek. **Iaz Nicolasek Kaito Telebista erosteko eskaintzarik ere jaso zuen, baina ez du emisorea saltzeko asmorik izan.**

tu beharko lioke. Baina bai Azpeitian eta Azkoitian, ia Euskal Herri osoan bezalaxe, telebista frantsesaren errepikagailuak daude, gero auzoetarako errepikagailuak daude eta baita txoko arraroetarakoak ere... Azkenean, benetan legezko-legezko

bezala oso kontu gutxi daude frekuentzien mundu honetan. Nire ustez, kontu hau konpontzea oso zaila izango da. Labur esanda, lege bat badago, baina osorik betetzeko zaila dena. Orduan, bakoitzak egiten duguna zera da: ahal den lekutik emititu inori trabarik egin gabe”. Kaito Telebistak kanala orain aldatuz irrati digitalari aurre hartu dio; “agian hemendik hamar urtera etorriko da irrati digitala, baina jada libre utzi behar zen 8. kanala”.

Kamera atzeko eta telebista aurreko kontuak eta komeriak guztiak, Nicolasek askotan bizitakoak. Orain Urtzi semearen ibilbidean lagun izango da; azken urteetan semea bera izan du laguntzaile. Paperak aldatuta beraz, funtzio bera egiteko. Herriarentzako funtzioa. ●

zuk ere eman ezazu albistea, agenda, botoa, iritzia...; hartu parte Azpeitiko atayen, erraza da

www.uztarria.com

datue

78.445

bisitari izan zituen iazko urte osoan Loiolak. Azpeitiko Tren Museoan, berriz 37.724 bisitari izan ziren 2001. urtean, eta 270 talde pasatu ziren bertatik.

esaldiye

“Ez nago unibertitate linguistiko bat sortzearen alde, zatiketa egitearen alde”

Inaxio Oliveri

(Mondragon Unibertsitateko Errektorea)

esaerie

“Otsail lore, batre lore; martxo lore, batre ez baño hobea; apiril lore urre lore, maiatz lore paregabe”

liburutik ttak

“Bi euskara bereizten ditu frankismoak: bata ‘espainola’ eta ‘separatista’ bestea. Lehenengoa herritarra da, ahozko tradizioz hurbil dago, bertsolariena da. Bigarren hizkuntza, berriz, artifiziala da, Arana Goirik asmatua, ulertezina, laborategikoa. Ortografia ere berria da, ‘separatista’ (sic). Euskara hau, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak onartua izan, edo agian horrexegatik, ez du onartzen zentsurak. Garai hartako hizkuntza normalizatua borrokatzen zuen frankismoak, separatista omen zelako”.

‘Artaziak. Euskal liburuak eta Francoren zentsura. 1936-1983’. Joan Mari Torrealdai. Susa argitaletxea. 1999.

kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)



**GARAI BATEKO
ASTE SANTUAK**

Aste Santua, geldialditxo... Ohiko bizitza eten egiten da nolabait, ikastetxeak hustu eta lantegiak ere gehienbat isilean gelditzen dira. Aspalditxotik gertatzen da berdin, baina beste gauza batzuetan aldaketa handiak eza-gutu dituela esan behar Aste Santuak, oporraldi motz bezala hartu eta ihes egiten dugu gehienok herritik.

Bestelako kontuak ziren dirudienez Azpeitian garai batean, elizkizunei zegokionez behintzat. Vera Cruz deituriko kofradia indarrean, 1584an baimena eskatu eta sortu zen unetik, herriko agintarien aldetik bultzada jasota. 1641ean, berarentzat bandera beltza gurutze berdea erdian zuela egiteko eskaera egin zioten Sevillara, herritar Martin Perez Goiaz jaunari, Ostegun Santuz egiten zuen prozesiorako.

Pentsatuta zuen 1693. urtean Ostiral Santu

arratsaldez prozesioa egitea eta aurreko urteko azaroaren 11n adierazi zion Udalari, Kristoren irudiak prestatzen ari zela esanez, bat gurutzetik jaitziera agertzeko eta bestea, berriz, hiletatarako, Bakardadeko Andre Mariaren beste irudi bat ere amaitzeaz zuela jakinaraziz. Prozesio horretan militar eran, alkabuz eta pikekin joan beharko zuten 24 edo 30 bat gizonetako aukeratzea ere eskatuko zuen, eta gainontzeko partaideek jazki beltzak eta kandela handiak eramango zituzten.

Urteak igarotzean, aldaketa nabarmenak ezagutu zituen prozesio horrek. 1816an, esaten zaigunez, ohiturari jarraituz partaide hogei soldadu, bi danbor eta bi txilibitu izango ziren.

Kofradiak berak jarraitzen zuen egokitzen Ostegun Santuko prozesioa 1729an ere. Baina gauz kaleratzen zenaren lehen urtee-

garai bateko Azpeitiye ...Maria Gurrutxagak kontatua

Baserritik azokara

Mariak Elosiagako Etxeberri baserritik jaisten zituen azokara bi baserrietako produktuak

Ion Aranburu

Duela urte gutxi arte oso desberdinak izaten ziren baserritik azokarako joan-etorria. Azokara herriko baserritarrek soilik jaisten ziren beren produktuak saltzera. Orain, berriz, kanpoko jendea nagusi izaten da plazan. “Lehen ez ziren etortzen orain bezala kanpotarrak laranjak-eta saltzera, denak herrikoak ginen. Oilaskoak, oilandak, untxiak... geuk ekartzen genituen baserritik. Hori zen gure dibertsioa; kalerakoan eta etxerakoan barre ederrak egiten genituen”, dio Maria Gurrutxagak.

Oraingo Land Roverrak-eta ez zituzten eza-gutzen gure aiton-amonek. Baserrirako joan-etorrietarako astoak erabiltzen zituzten. Kalera jaisten ziren neskek astoak izaten zituzten garraio moduan, eta baserrira lanera igotzen ziren mutilek, berriz, bizikletak. “Sokatik astoa heldu eta kalera jaisten ginen, gorakoan asto gainean jarrita igotzen giren. Astoarekin ere

makina bat barre egiten genituen. Herrira iritsitakoan astotegian uzten genituen, bertan zeuden burdin batzuei lotuta utzi eta plazara joaten ginen, baserritik ekarritako gauzak saltzera. Koadrila ederra biltzen ginen azoka plazan”.

Baserrietara joateko gaur dauden errepideen antzik ere ez zuten ordukoak. Bideak egiteko harriak ipintzen zituzten bide bazterretan eta gainean lokatza botatzen zuten.

Azokan zeuden prezioekin ere ederki gogoratzen da Maria. “Elurra egiten zuenean garesti-goak izaten ziren. Litro esnea bi erreal; arrautza dozena, berriz, hamar erreal. Han etortzen ginen abarkak jantzita, ez genituen oraingo katiuskak eta botak. Geuk ikasi genuen jertsekak-eta egiten. Hauekin dotore, bestela bufandarekin ibili behar izaten genuen, eta lotsatu egiten ginen hura zatartzen hasten zenean.”

Oinetakoak —hau da, alpargatak— erosteko menda-erratzak egiten zituen Maria Gurrutxagak. “Zazpi erratz egiten genituen alpargata



Garai bateko Aste Santuetako bi irudi. / IMANOL ELIASEN ARTXIBATEGIKOA



xapo euskerie

Aitor Arruti
Arantzazu Azpillaga
(itzultzaileak)

EUSKALKIAK IDATZIZ (II)

Azpeitiarrez idazten hasten zaretenean eskura izan ditzazuen, aditu batzuen iritziak bilduko ditugu ondorengo zutabe honetan.

Hasteko, **Miren Azkarate** euskaltzain osoaren iritzia dakarkizuegu. Miren Azkarateren ustez, euskalkiak idazterakoan hiru puntu hauek hartu behar dira aintzat:

1. Edozein euskalkitako **hitz eta egitura guztiak erabili daitezke ahoz eta idatziz**. Bai euskalkian, baita batuan ere. *Jarri eseri* bezain egokia da, eta *tentetu zutitu* bezain aproposa, nahiz eta askotan euskara batuko hitzak egokiagoak, aproposagoak direla uste izaten dugun.

2. Ereduren bat hartzekotan, **duela 300-400 urte idatzitako testuetara jotzea komeni da**, orduan idazle bakoitzak bere euskalki batuan idazten baitzuen. Klasiko haien antzera idazten duenak, ez du huts egiteko beldurrik izan behar.

3. Idazteak badauka minimo bat, eta hori osorik idaztea da. Ez da idazlerik literatura tradizioan *egin* idatzi ordez *eiñ* idatzi duenik. **Hitzak osorik idatzi behar dira**.

Miren Azkarateren eta beste aditu batzuen iritziak ezagutu nahi izanez gero, esate baterako **www.argia.com** helbidera joan zaitzekete, eta **2000. urteko urtarilaren 30eko Argia On Line 1.747. alea** irakurri.

● **VERA CRUZ.** Vera Cruz kofradia 1584an sortu zen eta 1729an ere Ostegun Santuko prozesioa kofradia honek jarraitu zuen egokitzen

tako berririk ez dugu berdin egiten ziren edo ez jakiteko.

Herri baten historia, zatika osatuta dago eta zati horietako bat aipatzea besterik ez dugu egin hemen, gaur egun, ulertezin egiten bazaiugu ere.



Asteroko azoka. / JUAN JOXE AGIRRE

“ Herrira iritsitakoan astotegian uzten genituen astoak, bertan zeuden burdinei lotuta”

Maria Gurrutxaga



pare bat erosteko hiru errealetan”. Makina bat erratz egindakoa da Maria, oinak janzteko.

Emakume hark ez zituen bere baserriko kontuak bakarrik ematen, bi etxetakoak baizik. Herrira azokara jaisten zenean, asto gaineko fardeletan bi baserrietako gauzak jaisten zituen saltzeko. Produktuok saldu ondoren irabazten zituen sos guztiak aitonari ematen zizkion. Trukean egunean pezeta bat ematen zion aitona Mariari. “Aitonak emandako pezeta hura amari ematen nion. Neuk beharko nuenik ere ez zitzaidan burutik pasatzen”.

Ondo gogoan du beti aitona beretzako presatuta izaten zuen menda-finezko erratz berdea. “Aitonak baratza nola zegoen begiratzen zuen bitartean, nik baserriko goiko logelak menda-erratzarekin garbitu eta dizdira ederrean uzten nituen. Izan ere, lurra intxaurren beltza zen”.

osasune Julian Bereziartua (medikua)



ERREMOLATXA ETA BERE AZUKREA

Landaretzaren bigarren mailan sailkatzen dugu erremolatxa-landarea, baina oso garrantzizkoa da gizakien elikaduran.

Lau erremolatxa mota ezagutzen ditugu: bazka-erremolatxa, azukre erremolatxa, erremolatxa gorria, eta zerba edo azelga.

Mota hauen arabera, gizakien eta animalien elikadurarako edo guretzako mesedegarri den eta sukaldaritzan erabiltzen dugu azukrea egiteko.

Elikadura orekatua nahi badugu, egunero hartzen ditugun elikagaien %55, karbono-hidratoak edo azukrea izan behar dute.

Erremolatxaren azukrea, disakarido bat da eta txistuan dugun eta pankreasek edo areak ematen duen amilasaren eraginez glukosa bihurtzen da; glukosa hau, gure azukrea, gure bitzta osoan, neurri zehatz batean mantendu

behar dugu. Mekanismoen akatsagatik, gure odoloko tasa gutxitzen bada, hipogluzemia sor daiteke eta, ondorioz, nekea, tristura, logura eta, zenbait kasutan, baita lipotimia edo zorabioa ere. Eta arazoa konpontzen ez badugu, itzulezina gerta daitekeen koma hipogluzemikoan eror gintezke.

Azukre gehiegi dugunean, berriz, diabetes gaitz ezaguna sortzen zaigu; ase ezineko egarria, gosea, pisua galtzea eta abar dira bere ondorioak. Biztanleri helduaren %5ak du gaitz hau. Gaixotasun larria da, nahiz eta askok behar adinako garrantzirik ez eman.

● **ELIKADURA.** Orekatua nahi bada, eguneroko elikagaien %55, karbono hidratoak edo azukrea izan behar du

aisia

DENBORA-PASAK ETA HITZ JOKOAK EUSKARAZ 'LUMA'-REN BIDEZ



Luma denbora-pasa eta hitz jokoen euskara hutsezko aldizkaria kaleratu zen urtarilaren amaieran. Salgai dago kiosko eta liburudendetan, hiru euroren truke. *Luma*, hilibetekaria da, 68 orrialdekoa, eta azala lau koloretara du eta barrualdea bitara. Ale bereziak ateratzeko asmoa ere badute *Luma*-koek: uztailakoa eta abendukoa izango dira eta ehun orrialde izango dituzte. Bestetik, gai monografikoak izango dituzten aleak ateratzekotan direla ere iragarri dute.

gertuko pasadizue

ZEZEN PLAZAN AIZKORA NEURKETAK

● **1972-XI-12, AZPEITIAKO ZEZEN PLAZA:** "Igazko udazkenean Azpeiti'ko zezen-plazan ospatu zan neurketa zoragarri bat aipatzeke ez gaitzke geldi: Agieta eta Urreta, azpeitiar gazteen arteko borroka ikusgarria. Azkenenengo iruzpalau urteotan il samarrik nabaitzen genduan jokoera auxe; ez leiaketarik naiz neurketarik ez bait-zan ia iñun ere antolatzen. Izan ere, kezkgarria zan bere inguruan somatzen zan giro otz eta illuna".

'Gure erri-joku nagusiak' liburutik hartua. Jose Luis Iriarte. Etor argitaletxea. 1973. urtea.



SONS - MAJKAR

estetikako azken teknikak

Enparan, 15-1
Tel. 813898

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURUOK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

PILDAIN
inmobiliaria

Elizkale, 22 • Tf. 943-812167 • pildain@jet.es

TABERNA

LOKOTX

Telfnoa.: 943 151086
Enparantza Nagusia

Egin publizitatea

uztarria

943 15 03 58

Patxi Goenaga

Hizkuntz Politikako sailburuordea

Hilabete eta erdi darama Patxi Goenaga loiolatarrak (1948) Eusko Jaurlaritzan Hizkuntz Politikako sailburuorde karguan; oraindik ere denbora gutxitxo, haren ustez, "arazoaren tamainaz" jabetzeko

"Euskalgintzak Planean parte hartzeko formulak aurkitu behar dira"

Enkeoitz Esnaola

Patxi Goenaga Azpeitira etorri den tarte batean egon da Uztarría herri aldizkaria harekin, Enparan Dorretxean, kargu berria eta euskararen normalizazioa gaitzat hartuta elkarrizketa egiteko.

• Zer moduz kargu berrian?

Tamaina hartu nahian, eta ezin harturik, beharbada.

• Zergatik ezin harturik?

Hilabete eta erdi baino ez daramadalako karguan. Eta gero gauza berria dudalako, eta gai puntual eta tekniko hauetatik urruti ibili izan naizelako. Lurreratzen, beraz.

• Nolatan animatu zinen?

Miren Azkaratek eskatu eta animatu ninduen sartzeko. Hasieran arrazoiak ezezkoa ematekoak ziren, saltsa batean sartzzen zarelako. Zergatik bai orduan? Ni orain arte hizkuntzaren alderdi bat ikusten egon naiz, korpusa, hizkuntza bera, eta

uste nuen okasio ona izan daitekeela hizkuntzaren atzeko parte edo ingurukoa ikusteko. Eta Euskal Herrian euskararen inguruan hainbeste gauza mugitzen direnez, okasio ona da hor dabilzan edo nik badirela uste dudan zenbait txoko edo zenbait zirrikitu pixka bat ezagutzeko eta hor azpian zer dagoen ikusteko.

• Politikan sartzekak kezka sortu dizula esana duzu.

Bai. Herri honetan bereziki, ezina da politi- ▶



IZARRAIZPE
IRAKASKUNTZA ELKARTEA

**AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI**

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)



**UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI**

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 / 943 85 2265
Fax.: 943 85 28 67
E-mail: azkoitia@uroala.hezitek.net

Perdilegi, 3
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 26 65 / 943 81 37 70
Fax.: 943 81 66 20
E-mail: azpeitia@uroala.hezitek.net

Perdilegi, 2
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94

“ Miren Azkaratek animatu ninduen, eta okasio ona da zenbait txoko ezagutzeko”



“ Ezina da politikari ihes egitea, eta beldur ematen dit, ez naizelako lehen bezain eroso ibiliko”



“ Nahi nuke Azpeitia Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian beste herrien aurretik izatea”



“ Formulak aurkitu beharko dira euskalgintzak parte hartzeko, baina gidaritzaz Udalak izanda”



“ Ez du merezi dirua eta indarra alferrikaltzea. Nola uztartu? Borondatea behar da”



► kari ihes egitea; egiten denean egiten delako, eta egiten ez denean ez delako. Baina ni horrelako saltsetan ez naiz egon, sekula ez naizelako izan ez zinegotzi, ez alkate. Beldur pixka bat ematen dit, orain arte bezain eroso ez naizelako ibiliko.

● **Orain eskuartean zer duzu?**

Orain, bereziki, aurtengo deialdiak: diru laguntzak... 2002ko aurrekontuak ere hor ditugu, baina ezingo da aldaketa handirik egin, joan den urtekoak luzatuko direlako seguraski, eta amets egitea libre da, baina dagoena dago.

● **Eusko Jaurlaritzaren herrietako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia ere hor duzu...**

Eusko Jaurlaritzak, eta bereziki Hizkuntz Politikak, konpromisoa hartua dute, eta gai horri buru-belarri helduko diogu.

● **Apustu handia al da hori?**

Bai. Dena dela, ni oraindik ez naiz erabat jabetzen arazoaren tamainaz.

● **Zenbat herri eskatu dute Plana?**

Berrogei inguru dira, eta orain herri haiekin harremanetan jarri behar gara.

● **Azpeitia da Plana eskatu duen herri bat. Zertan da kontua?**

Abenduaren 2an egin zen ekitaldi bat, baina harrezkero dei bakarra izan dugu, Patxi Saezuna [udal euskara teknikariare-

na], ni kargura iritsi eta berehala, eta esan nion, gauzak patxadaz egite aldera, uzteko pixka bat pentsatzen.

● **Azpeitiko Udalak segituan egin nahi zuen hitzarmena Eusko Jaurlaritzarekin, Plan Nagusia martxan jartzeko. Baina hitzarmenik ez dago oraindik.**

Eusko Jaurlaritzako aurrekontuen kontua hor dagoelako. Lehen ez genekien nola geratuko zen eta orain badakigu aurrekontuak joan den urteko beraiek izango direla. Eta lehen aurrekontu berrietan Euskara Biziberritzeko Planerako, oker ez banago, 300 milioi pezeta jartzea pentsatzen bazen, orain, aurreko urtean bezala, 100 milioirekin moldatu beharko gara, eta ahal den neurrian egingo da aurrera.

● **Hori ikusita, zer gertatuko da Azpeitian?**

Nik ez dakit konpromiso pertsonal bezalako hartu dudana, baina nahi nuke, Azpeitian lehenak izan baziren Plana martxan jartzen, bera izan dadila besteen aurrean gidaritzaz eramango duena.

● **Nahi baino diru gutxiago izateak prozesua motelduko al du?**

Ez dut esango atzeratu edo moteldu egingo direnik gure plan guztiak. Nik uste hor zenbait gauza dirurik gabe egin daitezkeela, baliabideak beste era batera erabiliz.



NEREA URANGA

● **Baina apustua handia bada, aurrekontuetatik ezin al dira diru partidak mugitu?** Dirudienez ez, dena bere horretan mantenduko delako.

● **Azpeitian Udala herri osoa euskalduntzeko prest azaldu da. Baina euskararen arloan zenbaterainoko konfiantza izan dezakete azpeitiarrek orain dela hiru urte arte euskara teknikaririk eta Udal Euskara Patronatorik ez zituen Udal batengan?**

Badakit zenbaitek esango duela norbaiten estrategia politikoa dela hau. Ba, zoriontsu gu, hori horrela baldin bada, noizbait jendea aldatu egin delako. Abenduaren 2an Azpeitian egin zen ekitaldi hartan nik neuk esan nien aurrena izatea —eta azpeitiarrok harro fama hori badugu— ez dela debalde ateratzen, eta orduan erronka bat hartzen dutela, eta horri erantzuten jakin behar zaiola. Eta, nire ustez, ona da alboan jende bat izatea, ez dut esango xaxatzen baina bai zirikatzen, zeren bestela badakigu gauzak nola diren...

● **Zer jende?**

Erakundeak, gazteak, aldizkaria, elkarteak... Udalak egin behar duenarekiko eta hartu duen konpromiso horrekiko presio bat baldin badago, ezerosoa izan liteke baina helburuetarako ona, betiere presioa

neurri batzuen barruan baldin badago eta zibilizatu baldin bada.

● **Baina presioa egin beharrean, ez al da hobia elkarlanean jardutea?**

Baina elkarlana zer da?

● **Galdera bera beste era batera: euskararen normalizazioa Udalak soilik gidatu behar du edo herriko euskalgintzak ere parte hartu behar du?**

Elkarte guztiek hartu behar dute parte. Tristeia litzateke gauzak errepikatzea, eta hori Euskal Herri honetan askotxo gertatzen da; hau da, sortzen da gauza bat eta segituan alboan beste bat sortzen da, paraleloan. Dena Udalak egin behar duen? Nik uste zenbait gauza Udalak ez dituela egin behar; esate baterako, Udalak ez du zertan egin aldizkaria, badakidan arren [Uztarriaz gain] Azpeitian badagoela beste bat. Elkarteek parte hartu behar duten Plan Nagusia? Bai, horiek izan behar dute protagonismoa, baina gidaritza Hizkuntz Politikako sailburuordetzari eta kasuan kasuko udalari eramatea dagokie. Gero udal bakoitzak jakin beharko du zer nolako lankidetzak izan ditzakeen.

● **Lehen esan duzu ez dela komeni gauza paraleloak sortzea, baina Azpeitian zerbait paraleloa sortu duena Udala izan da, 2001eko hasieran euskalgintza guztiaren —gero Baite Euskara Elkarte sortu zen—, Udalaren eta gizarte eragile garrantzitsu batzuen artean Kontseilura hautagaitza aurkeztu baitzen herrietako plangintza zela-eta, eta Kontseiluak Azpeitia hautatu egin zuen esperientzia pilotu izateko. Handik lau hilabetera, ordea, Udalak bizkar eman zion horri eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari heldu zion...**

Euskara Biziberritzeko Plana Kontseilurarena baino lehenagokoa delako.

● **Orduan Udalak zergatik sinatu zuen ba Kontseilukoa?**

Ez dakit. Baina Athleticek ere sinatu zuen...

● **Baina ez da gauza bera. Udalak Kontseiluren Azpeitiko planeko zuzendaritzan parte hartuko luke.**

... Zer esango dizut ba.

● **Baite Azpeitiko Euskara Elkarteak, hala ere, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusi horren barruan sartzeko proposamena luzatu dio Udalari. Baitek zuri emana dizu proposamen hori. Interesgarria al da?**

Formulak aurkitu beharko dira, zenbateraino eta abar. Formula horretan ziurtatzen baldin bada gidaritza Udalaren esku egongo dela, eta helburuak garbi jartzen badira, interpretazio desberdinek arazoak ez sortzeko, gero hor txerta daitezkeen neurri guztiak, ekimenak eta elkarteak oso ondo ikusten ditut, ona delako lankidetzak.

● **Euskalgintzarik gabe lor al daiteke Azpeitian euskararen normalizazioa?**

Berritot oso ondo ikusten dudala euskalgintzak Planean parte hartzea. Pasatzen dena da, Azpeitiko euskalgintzaren barruan seguraski, nik entzuten ditudan izen batzuen artean, batzuk badirela eztabaidagarriak gutxienez; ez dut esango zein. Baina ondo ikusten dut euskalgintzan dabiltzan erakundeak sartzea, eta nik uste behar direla, gainera. Formulak aurkitu behar direla, azken batean. Eta garrantzitsua da Udala zirikatzea.

● **Baitek ez du zirikatu nahi, parte hartu baizik.**

Parte hartzea, zirikatzeke modu bat da.

● **Udalak oraindik ez dio aterik ireki.**

Nik ez dakit horrenbesteraino, horiek herri barruko kontuak dira eta.

● **Agian honekin lotua dagoen kontu bat: zer moduzko harremanak daude Eusko Jaurlaritzaren eta Kontseiluren artean? Apirilean moztu egin ziren harremanak.**

Nik neuk oraindik ez dut izan harremanik. Xabier Mendigurenekin berarekin bai kointziditu dudala, aspaldiko lagunak garelako, eta Miren Azkarate ere egon da harekin, baina organikoki ez da harremanik izan. Eusko Jaurlaritzak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia aurrera ateratzeko konpromisoa du, bere helburuekin, hemen euskaldunak erosoago sentitzeko eta euskaraz bizi ahal izateko. Kontseiluak ere horrelako zerbait bultzatzen duela? Bai, eta, beno, ondo. Baina orain arte ez dugu izan harremanik, hitzorduren bat jarria dugun arren, Kontseiluko atal bat dela eta.

● **Tolosaldean badago bi planak uztartzeko asmoa.**

Nik uste uztartu beharra dagoela horrelakoetan. Ez du merezi ez indarrak, ez diruak alferrikaltzea. Nola uztartu? Oraindik ezin dut esan. Borondatea behar da.

● **Kontuak kontu, Azpeitiak baditu aukerak euskara aldetik herri eredugarria izateko, ezta? Gaur egun erabilera aldetik baino ez da eredugarria...**

Bai, eta horrek harro sentitzeko motiboak ematen ditu. Ahozkoan nolakoak garen denok dakigu. Beste arloetan buelta ematea falta da, baina oso zaila da beti erdaraz egin den toki batean euskaraz funtzionatzen hastea. Baina Azpeitiak baditu baldintzak herri eredugarria izateko.

● **Gurean sentsibilizazio eta kontzientziazio lan handia egin behar al da?**

Jakina! Adibidez, niri gustatuko litzaidake Azpeitiko hizkuntz paisaia bestelakoa izatea. Alde horretatik, zuek horrela segitzeko animatu nahi zaituztet; aldizkaria txukuna iruditu zait, eta web gunea ere bai. ●

Elkarrizketa oso-oso www.uztarria.com helbidean aurki daiteke

EUSKARAREN NORMALIZAZIO EREDUEZ

Zer da euskararen normalizazioa? Gizarteko ezein esparrutan euskara erabili ahal izatea. Nola lortzen da hori? Badaude ereduak

Enekoitz Esnaola

Euskararen normalizazioaz asko entzun da azkenaldian Azpeitian, Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari heldu diolako. Dela dela, ez da eredu bakarra, eta Baitek mahainguru bat antolatu zuen joan den urtearen bukaeran horretaz hitz egiteko.

Juainazio Azkue (Baite Azpeitiko Euskara Elkarteak)

“Hizkuntz normalizazioa gertakari soziala da eta euskalgintzak hor behar du”

“Orain dela urte eta erdi hasi ginen biltzen euskararen gaiaren inguruan, herrian kezka bat zegoelako: Azpeitia euskalduna da, erabilera handia da kalean, lagunartean eta etxean, baina hainbat gauzatan gabezia dago. Zenbait arlori konponbidea eman nahian sortu zen Baite. Euskalgintzaren bilgunea da elkarte hau, eta hori garrantzitsua da, orain arte bakoitzak bere aldetik jardun duelako. Udala ere azkenaldian urratsak egiten ari da, baina Udalak orain arte ez du kontuan hartu Baite. Baina garbi eduki behar da funtsezkoa dela herrian euskara elkarte sendoa izatea, beti izango delako eragile: ekarpenak egingo ditu, lana, kontzientziazioa, koordinazioa... Azpeitian plan estrategiko bat egin behar da, eta euskalgintzak zuzenean parte hartu behar du hor. Azken batean, hizkuntz

normalkuntza prozesua gertakari soziala da, eta jendea motibatzen bada eta benetan protagonista bada izango du prozesuak arrakasta”.

Ander Elortondo (Arrasate Euskaldun Dezagun)

“Dauden ereduak kontuan hartuz, herri bakoitzak bere plana egin behar du”

“Plan estrategikoak modan daude arlo desberdinetan, hain zuzen ere funtzionatu egiten dutelako. Baina plan bakoitzak herritik bertatik sortu behar du, bere ezau-garriekin; beretzat zer nahi duen erabaki behar du, eta hor bakoitzak bere egoeratik zer egin nahi duen ikusi behar du. Kontseiluko proposamena Arrasatera etorri zitzaigunean, aproposa ikusi genuen hura. Gero Eusko Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Planaren berri ere izan genuen. Bi ereduak kontuan hartu genituen, baina biei esan genien Arrasatek bere plana behar duela. Eta hala egin dugu, besteena txarra denik esan gabe. Baina besteei ezer eskatu aurretik, euskalgintzak berak izan behar du eredu euskararen alorrean. Orduan, guk garbi genuen plan estrategikoa diseinatzerakoan bi fase beharko genituela: bata euskalgintzara zuzendutakoa eta bestea gizarte eragileetara zuzendatutakoa. Guk lehendabizi euskalgintza barruan hausnarketa egingo dugu (zer da euskalgintza?) eta gero

Baitek elkarteak sendotzen dihardu


• Baite Azpeitiko Euskara Elkarteak sendotze lanetan dihardu. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia dela-eta Azpeitiko Udalarik egin dion proposamenaren inguruan bilera bat izan da bi parteen artean —Udalak, oraingoz, ez dio ezer eskaini—, baina elkarteak ez dio horri soilik begiratzeko, eta bazkide kanpainarekin aurrera segitzen du (berrehun ditu), elkarteak bera barrura begira antolatzen ari da, eta bazkideen batzar bati begira pausoak ematen dihardu.

geure plan estrategikoa 2002ko udaberri-rako (denon diagnostikoa egin, helburuak finkatu, lan ildoak...). Eta horren ostean gizarte eragileengana joango gara, eta haiekin bigarren fasea burutuko dugu. Jakina, hemen dirua behar da, baina guk ez dugu inongo lotsarik Udalarik dirua eskatzeko. Azken batean, honekin ez du inork onura partikularrik atera behar, irabazten duen bakarria herria da, eta, beraz, dirua herriak jarri behar du, Udalak”.

Iñaki Azaldegi (Tolosaldeko Plan Estrategikoa)

“Sektore bakoitzak bere diagnostikoa eginez gero, sentsibilizazioa lortzen da”

“Tolosaldeak badu agentzia ekonomiko bat —Tolosaldea Garatzen— eta hor baillarako 28 udaletatik 27k hartzen dute parte —Amezketakoak salbu—, eta horrela lortu zen euskararen normalizazioa denen artean abiatzea, eta ez orain arte bezala bakoitzak bere aldetik. Norberak —enpresak, ikastetxeak, gizabanakoek...— konpromiso bat hartu behar du, baina inor ezin da konpromiso hori hartzera behartu, konpromisoak borondatezkoa behar duelako. Eta salto mortalik ere ezin zaio inori eskatu, prozesuak ezin du azkarregia izan; prozesuak mailakatua izan behar du, beti presio bat eginez baina nahiko modu naturalean garatuz. Tolosaldean geure plana egin dugu, Euskara Biziberritzeko Plan



ENEKOITZ ESNAOLA

ARITUAK ETA ADITUAK. Euskararen gaian arituak edo adituak, edo biak, bildu zituen Baite Azpeitiko Euskara Elkarteak euskararen normalizazio ereduez hitz egin zezaten; hain zuzen, Enparan Dorretxeko eskaileratan jarrita ageri diren laurak elkartu zituen. Argazkian, ezkerretik eskuinera, mahainguruko lau hizlariak: Iñaki Azaldegi, Juainazio Azkue, Ander Elortondo eta Zigor Etxeburua.

Nagusia, Kontseiluarena, Donostiako Udal Euskara Patronatoarena eta aurretik geurean eginak genituenak uztartuz. Ezer zehazten hasi aurretik, sektore bakoitzeko kideek bere diagnostikoa egin behar dute, sektore bakoitzak ikus dezan euskara nola dagoen bere esparruan: ahuleziak, auke-
rak, indarguneak.... Bigarrenik, betetzeko moduko helburuak jarri behar dira. Eta hirugarrenik, helburu horiek lortzeko zer egingo den erabaki. Honekin guztiarekin, sektoreak normalizazio prozesuan zuzenean partaide izanik, izugarritzko sentsibilizazioa lortzen da sektore horretan. Azkenik, konpromisoak hartzen dira”.

Zigor Etxeburua (Kontseilua; 'Bai Euskarari Akordioa herrietan')

“Ezer egiten hasi aurretik, baliogarria da gizarte eragileek gogoeta egitea”

“Zer da euskararen normalizazioa? Euskara, frantsesaren eta gaztelararen maila berera iristea gizarteko esparru guztietan eta erabili ahal izatea. Hori da Kontseiluak bilatzen duena, euskalgintzari batasuna

emateaz gain. Baina hori nola lortzen da? Eusko Jaurlaritzak normalizazioa goitik behera planteatzen du, eta Kontseiluak planteatzen du behetik gorako prozesu bat ere martxan jarri behar dela. Baina guk ez dugu ukatzen goitik beherako prozesurik, eta, gainera, egon behar duela exigitzen dugu. Guk Plan Nagusi bat dugu, baina Kontseiluak gizarte eragileei ez die esaten zer egin. Gizarte eragile bakoitza, behartu gabe, pentsatzen jartzen dugu, eta berak esaten du zer egin behar duen. Beraz, gogoeta baliogarria da, eta ezerean aurretik hori egin behar da. Baina konpromisoa hartu eta betetzea da garrantzitsuenak”. ●



Zestoarrek izako maiatzetik EHNA udaletxean ateratzeko aukera dute. Argazkian, zestoar baten agiria.

UDALARI EHNA BABESTEKO ESKATUKO ZAIO

Bai Euskal Herria ekimenak euskal nortasun agiriak, herriko erakundeetan baliogarritasuna izatea eta ateratzeko beharrezko baliabideak jartzea eskatuko dio Udalari

Herria Uranga

Bai Euskal Herriari herri ekimenak martxoan Azpeitiko Udalari euskal nortasunaren inguruko bi eskaera egingo dizkio, ohiko udalbatzarrean; bate-tik, euskal nortasun agiriari (EHNA) Udalak babesa eta oniritzia ematea eskatuko du, eta, bestetik, agiri hori ateratzeko behar diren azpiegitura eta baliabideak Azpeitiko Udalak bere gain hartzea.

Eskaera udaletxeko ardura-dun eta ordezkariari bideratu aurretik, Bai Euskal Herriari herri-

50 bat herrietan bai

• Dagoeneko Euskal Herriko 40-50 herrietako udaletxetan EHNA (Euskal Herriko Nortasun Agiria) eskatzeko aukera dago. Bestetik, Udalbiltzak (hain zuzen ere, Batasuneko, Abertzaleen Batasuneko eta talde independente batzuetako zinegotziek kudeatutakoak) Euskal Herriko bi hiriburutan dituen bulegoetan ere eskatzeko aukera dago; Bilbon eta Iruñean. Udalbiltzakoek adierazitakoaren arabera, "udal batzuetan onartu egin da udalak berak baliabideak jartzea EHNA ateratzeko, eta horretarako azpiegiturak edo bulegoak jarri dituzte. Beste batzuetan, berriz, onarpenik izan ez duen kasuetan, Batasuneko zinegotziek euren bulegoa ireki dute, herritarrek EHNA eskaria egin dezaten bertan". Azpeitian, martxoan ikusiko da Udalean zer erabakitzen den Bai Euskal Herriari ekimenak aurkeztuko duen mozioaren inguruan.

pausoak

Agiria nola eskatu?

• **UDALA.** Udaletxean eskaria egin ahal izateko, bertan onartu beharko da horretarako baliabideak jartzea, herritarrek beraiek han euskal nortasun agiria eska dezaten.

• **DOKUMENTAZIOA.** Udalean eskatzeko aukera dagoenean, haxe da eskaera egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa: batetik, Udalbiltzako kontuan Kutxa edo Euskadiko Kutxan hamabi euroko diru-sarrera eginda izanaren ordainagiria. Bestetik, hiru argazki. Azkenik, Udalean errolatuta dagoela adierazten duen agiria.

• **BETE BEHARREKOA.** Udaletxean edota Udalbiltzako bulegoren batean dokumentazioa entregatzearekin batera, norbanakoen datuekin eskaera orria bete beharko da eta sinatu.

• **UDALBILTZAN.** Udalak berak jasotako eskaera eta dokumentazioa Udalbiltzara igorriko du, eta hilabete barru norbanakoak bere Udalean bertan EHNA jasotzeko aukera izango du.

tar eta herriko taldeen artean jardun du lanean, taldeen babesa jasoz eta norbanakoen konpromisoa lortuz. Eta martxoan, udaletxean egingo den udalbatzan eskaera hauek luzatuko dizkie herri ekimen honek udaletxeko alderdi ezberdinetako ordezkariari.

Ekimen honen bidez, "Euskal Herriaren eskubide zibil eta politikoen defentsa" egin nahi dute. Ekimenekoek azaldu duteenez, nortasun agiri propio bat eskatzearen arrazoia, gaur egun "beste eskubide askoren artean nortasun propioaren ukapena" ematen dela da. •

MUSIKA NOBEDADEAK DOAN EGUNKARIAREKIN!

Egin zaitez harpidedun eta aukeratu gogoko duzun musika*



JOSEBA TAPIA: AGUR INTXORTA MAITE, 1936-37 GUDAKO KANTUAK
Koldo Izagirre idazleak eta Joseba Tapia musikariak eginiko ikerketa sakonaren ondorio dugu lan hau. Joseba Tapiak maisuki berpiztu ditu larrialdiko bertsoei dagokien biluztasuna, herri baten malkoak, ilusioak eta askatasun egarri handia.



MARKOS UNTZETA: GAUA BASAMORTUAN
Estreinako diskoa den arren, Ingalaterran eta Bahamasko kostaldeko lokaletan jotzen aritu da. Kantu birbilak eta poetikoak biltzen ditu lan honek. Egun, Euskal Herriko Jon Urrutia, Borja Berrueta, Dani Merino eta Gorka Eskoniatzarekin batera, talde sendoa osatu du.



EKON: SALATZEN DUT
Plazaratu berria den Arrasateko taldearen hirugarren lana. Metal berria jorratzen du, aurreko lan arrakastatsuen moduan. Ahots auritz, goi mailako sanplerrak eta, batez ere, erritmo bizi-bizia.



GOR: HAMAR URTEZ BIDEOAN
Gor diskoetxeak hamargarren urtebetetzean kaleraturiko lana. Euskal Herriko talde esanguratsuen bideoak biltzen dira: Exkixu, Julio Kagele, Parabellum, Koma, SuTaGar, Skalariak, Hemendik At!, Berri Txarrak...



RHUNE: ILEGAL
Irungo zazpikoaren estreinako diskoa. Rocka eta Folk nahastuz rock zeltara iritsi dira. Jai giroa eta alaitasuna daria abestiei. Zur eta lur utziko gaituzte.



URTZ: AINGERU
Oso abesti eraginkorrak egin dituzte bosgarren diskorako. Rocka, popa eta power-a melodia sarkorrak birbiltzeko leloen goxotasunean.



100% COLLOGUES:
Frantziar estatuko musikari ezagunen (Hakim eta Mustapha Zebda taldeko abeslariak, Bernardo Sandoval...) taldea, Mediterranear erritmokoa. Batean biltzen dira diskoetxearekin argitaraturiko bi diskoak.



GAILU: KUTXA BELTZA
Ikus-entzuneko egitasmoa. Mikel Abrego (Bap!!), Negu Gorriak... eta Luis Andrek (e-judo) zuzendu eta koordinatu. Kolaboratzaileak: Anari, Eneko Bap!!, Javi P3Z...

Harpidetza-aren abantailak

* Martxoaren 11tik 24ra

EGUNKARIAREN **promoioetan abantailak.**

Harpidedunaren txokoan **aisialdirako eskaintzak doan.**

Goizeko 08:00ak baino lehen jasoko duzu EGUNKARIA.

Harpidedun berriaren datuak
Bete eta bidali iragarkia beheko helbidera

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Tel.:..... Lanbidea:..... Jaioteguna:.....

K/k zbk.:..... N.A.:.....

EGUNKARIA / HARPIDETZA:

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 ANDOAIN

Tel.: 943 300 222 / 902 300 223

E-mail: harpidetza@egunkaria.com



telefono zenbakiyek

ERAKUNDEAK - TOKI

PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kirodegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbulategia-larrialdiak	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA-Donostia	46 46 22
SOS Deiak	112

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria herri aldizkaria	15 03 58
Azpeitian Zer?	81 11 00
Deia (berriemailea)	72 57 75
DV (berriemailea)	15 09 94
Egunkaria	943-30 02 22
Gara (Herriak Saila)	943-31 69 99
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943-01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ - PNV	81 55 70
Batasuna	15 12 15
EA	81 00 11

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

IKASTETXEAK

Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesusen Alabak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 65
Milagrosa	81 63 80
Urola BHI	15 02 28

KULTURA - EUSKARA

Baite Euskara Elkarteak [oraindik ez]	
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89

Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarrria Kultur Koordi.	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40
Kontseilua	943-59 12 00

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Euskaltel-informazioa	900-84 00 65
Telefónica-informazioa	1003

farmaziyek gaez

MARTXOAK 1-13-25-28-31

Aseginolaza. 81 13 50

MARTXOAK 2-3-14-26

Beristain. 81 19 49

MARTXOAK 4-10

Gisasola (Azkoitia). 85 12 35

MARTXOAK 11-16-17

Garcia. 81 12 74

MARTXOAK 12

Zulaika. 15 03 34

MARTXOAK 15-27

Etxebeste. 81 59 74

MARTXOAK 18-24

Ruiz (Azkoitia). 85 19 66

gune publikuek irikite

UDALETXEA

Astegunak: 9:00-13:30
Larunbatak: 9:00-13:00

IXPIXIOA

Egun osoz irekita

IGERILEKUA

Astelehenak: 14:00-21:00
Beste astegunak: 7:00-21:00
Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00
Kanpoko igerilekua: Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

Astelehenak: 9:00-13:00, 15:00-21:00
Beste astegunak: 15:00-21:00
Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

Aste Santuan, udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan: astegunetan, 9:00-13:00

autobusen ordutegiak

JOATEKO

AZPEITIA-ZESTOA-DONOSTIA

Astegunak: 6:50 (1), 7:50 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2)

Larunbatak eta abuztuko astegunak: 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15

Igandeak eta jaiegunak: 15:10, 19:15

Enpresa: La Guipuzcoana

Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik

AZPEITIA-EIBAR-BILBO

Astegunak: 6:30, 13:00, 18:30

Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30

Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 19:30

Enpresa: Pesa

AZPEITIA-EIBAR-BILBO

Astegunak: 6:35, 13:30

Enpresa: Piper Unibertsitate Elkarteak

AZPEITIA-AZKOITIA

Astegunak: 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25

Asteburuak eta jaiegunak: 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:40, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZESTOA-ZUMAIA

Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10

Asteburuak eta jaiegunak: 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05

Enpresa: EuskoTren

Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarna-zabaldik pasatzen da

AZPEITIA-ZESTOA-ZARAUZ

Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10

Asteburuak eta jaiegunak: 9:10, 11:40, 15:40, 18:10, 20:10

Enpresa: La Guipuzcoana

AZPEITIA-ZUMARRAGA (hospitala)

Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25

Asteburuak eta jaiegunak: 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ERREZIL-TOLOSA

Astegunak: 6:55, 13:45

Larunbat lanegunetan: 6:45, 11:00

Enpresa: EuskoTren

GARRAIO ENPRESEN EDO ELKARTEEN TELEFONO ZENBAKIAK

Aldalur	85 27 18	Pesa	21 26 99
EuskoTren	15 06 77	Piper Unibertsitate Elkarteak	85 25 87
La Guipuzcoana	85 11 59	Taxiak	81 13 07

ITZULTZEKO

DONOSTIA-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30

Larunbatak eta abuztuko astegunak: 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00

Igandeak eta jaiegunak: 18:00, 20:00

Enpresa: La Guipuzcoana

Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik

BILBO-EIBAR-AZPEITIA

Astegunak: 10:30, 14:30, 21:00

Larunbatak: 9:30, 14:30, 21:00

Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 12:30, 21:00

Enpresa: Pesa

LEIOA-BILBO-AZPEITIA

Astegunak: 14:00, 20:00

Enpresa: Piper Unibertsitate Elkarteak

AZKOITIA-AZPEITIA

Astegunak: 6:30, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00

Asteburuak eta jaiegunak: 7:15, 9:00, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55

Enpresa: EuskoTren

ZUMAIA-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00

Asteburuak eta jaiegunak: 6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15

Enpresa: EuskoTren

Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da

ZARAUZ-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45

Asteburuak eta jaiegunak: 10:00, 12:30, 16:30, 19:00, 21:00

Enpresa: La Guipuzcoana

ZUMARRAGA (hospitala)-AZPEITIA

Astegunak: 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30

Asteburuak eta jaiegunak: 8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45

Enpresa: EuskoTren

TOLOSA-ERREZIL-AZPEITIA

Astegunak: 9:30, 18:30

Larunbat lanegunetan: 9:30, 12:00

Enpresa: EuskoTren

Azpeitiko merkatu txikiye

1. ETXEBIZITZAK

- 1.1. Saldu
- 1.2. Erosi
- 1.3. Errentan eman
- 1.4. Errentan hartu
- 1.5. Etxeak osatu
- 1.6. Bestelakoak

2. LOKALAK

- 2.1. Saldu

2.2. Erosi

- 2.3. Errentan eman
- 2.4. Errentan hartu
- 2.5. Bestelakoak

3. GARAJEAK

- 3.1. Saldu
- 3.2. Erosi
- 3.3. Errentan eman
- 3.4. Errentan hartu

4. LANA

- 4.1. Eskaintza
- 4.2. Eskaera
- 4.3. Bestelakoak

5. MOTORRA

- 5.1. Saldu
- 5.2. Erosi
- 5.3. Errentan
- 5.4. Bestelakoak

6. BIDIAK

- 6.1. Europa
- 6.2. Mundua

7. DENETARIK

- 7.1. Saldu
- 7.2. Erosi
- 7.3. Errentan eman
- 7.4. Errentan hartu
- 7.5. Bestelakoak

deitu

15 03 58

e-maila:

uztarria@topagunea.com

● Partikularren iragarkiak doan dira. Gainerakoek, lerroko euro bat ordaindu beharko dute.

● Uztarriak ez du iragarkien onorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

● Aldaketak adierazi Uztarriari.

1. ETXEBIZITZAK

1.1. SALDU

● **Salbe Auzunea.** Balkoia, egongela, hiru logela, bainugela eta sukaldia. Telefonoa: 943 - 81 41 00. AMUBE.

● **Pablo VI.** 5. solairua. Hiru gela, sukaldia, egongela, bi balkoi, etxe eguzkitsua. 100 metro karratu inguru. Telefono zenbakia: 943 - 81 41 00. AMUBE.

● **Olazko Amaren Plaza.** Terraza, lau logela, bi bainugela, sukaldia, egongela, igogailua, trastelekua. Telefonoa: 943 - 81 41 00. AMUBE.

● **Santutxo.** Oso argitsua. Hiru fatxada. Balkoia, hiru logela, sukaldia, egongela, bainugela, berrituta. Telefonoa: 943 - 81 41 00. AMUBE.

● **Santiago kalea.** 22 zenbakia. 2. pisua. Telefonoa: 639 - 13 86 46.

● **Jose de Artetxe.** 12 zenbakia. Lehen pisua. Telefonoa: 943 - 15 07 51.

● **Eguzkitsua.** Eguzkitsua, hiru logela, egongela, trastelekua, bainugela eta sukaldia. Leku lasaia eta bista onak. Prezio interesgarria. Telefonoak: 943 - 15 12 85 (Lurdes, eguerdian) edo 943 - 81 22 99 (Arantxa gauean).

● **Bustinzuriko Errebala.** 40 metro karratu. Hirugarren pisua. Bi gela, egongela, sukaldia eta bainugela. Leihok Olazko Amaren Plazara. Telefonoa: 943 - 20 33 12 Leire.

● **Eliz kalea.** Eraikitzeaz dauden etxebizitzak. Egongela, bi-hiru logela, sukaldia, jangela, bi bainugela eta traste lekua. Telefonoak: 943 - 89 40 84 edo 636 97 43 20.

● **Soreasu.** 5. pisua. Telefono zenbakiak: 943 - 15 12 85 edo 943 81 22 99.

● **Iberotarren Enparantza.** 10.enean hirugarren solairua. Etxebizitza berria. Telefono zenbakia: 943 81 68 82.

2. LOKALAK

2.1. SALDU

● **Plaza Nagusia.** Lehen pisua, arkupetan. Telefonoa: 943 - 46 29 31.

● **Julian Elorza auzoa.** Telefonoa: 943 - 15 05 10.

● **Erdi kalea.** Telefonoa: 943 - 81 49 87.

● **Urbartarte.** Telefonoa: 609 37 87 31.

● **Urrestillara bidean.** 920 metro karratuko lokala saltzen da. Egoera onean. Telefonoa: 943 - 43 34 96.

2.3. ERRENTAN EMAN

● **Olazko Amaren Plaza.** Telefonoak: 943 - 15 08 72 edo 666 52 59 45.

● **lñaki Azpiazu kalea.** Telefonoak: 943 - 81 18 00 edo 943 - 81 02 94.

● **Enparantza Nagusian.** Lehen pisua, arkupetan. Telefonoa: 943 - 46 29 31.

● **Pablo VI.** 1. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 14 63.

● **Pablo VI.** 5. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 03 25.

● **Urbartarte.** Telefonoa: 609 37 87 31.

● **Juan XXIII.** 7. zenbakian. Telefonoak: 943 - 81 22 85 edo 943 - 81 28 97.

● **Landeta.** Telefonoa: 943 - 81 10 77.

● **Landeta.** Asepeyo-ren ondoan. Telefonoak: 943 - 81 17 59 edo 943 - 81 19 58.

3. GARAJEAK

3.1. SALDU

● **Garmendi.** 11. zenbakian. Telefono zenbakia: 943 - 81 04 45.

● **Arana Goikoa.** 5. zenbakian. Telefonoa: 943 - 58 10 42.

● **Santutxo.** 10. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 07 29.

3.3. ERRENTAN EMAN

● **Salbe auzoa.** 6. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 29 15.

● **Jose Artetxe.** Telefonoa: 943 - 15 75 25.

● **Foru Ibilbidea.** 2. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 03 25.

● **Juan XXIII.** 3. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 11 56.

● **Arana Goikoa.** Telefonoa: 943 - 81 34 95.

4. LANA

4.1. ESKAINTZA

● **Sukaldaria.** Taberna baterako. Telefonoak: 636 - 73 76 14 edo 658 - 24 39 56.

● **Ilepaintzailea.** Azpeitiko ilea-paindegi baterako ilepaintedzailea behar da. Kurrikuluma bidali 286 posta kutxara. 20730 Azpeitia.

● **Kamarera.** Azpeitiko taberna baterako kamarera behar da. Telefonoa: 943 - 15 16 34.

● **Galdaragilea.** Azkoitian. Hamabi hilabeteko kontratua. Urteko ordainsari gordina 16.828 eurokoa. Eskatzen da B1 gidabaimena izatea. (69818/1). www.lanbide.net

● **C.N.C.ko operadorea.** Azkoitian. Bi urteko esperientzia eskatzen da. Urteko ordainsari gordina 18.030 euro. (68665/5). www.lanbide.net.

● **Galderagile ofiziala.** Azpeitian. Kontratu mugagabea eskaintzen da. Urteko ordainsari gordina 12.981 eurokoa. Eskatzen da Urola-Kostan bizitzea eta esperientzia izatea. (68899/5). www.lanbide.net.

5. MOTORRA

5.1. SALDU

● **Motoa.** Derbi GPR-80. Bi eska-pe Tavi eta beste GPR-80 bat ia osoa piezatarako. Telefonoa: 656 - 77 08 97. Gorka.

● **Motoa.** Honda NSR-80.

● **Loiola auzoa.** Duplexa. Egongela, bi bainugela, hiru logela, sukaldia. Igogailua, aparkalekua. Berria bezala dago. Telefono zenbakia: 943 - 81 41 00. AMUBE etxegin-tza.

● **Fabrikazio burua.** Fabrikazio burua eskatzen da Azpeitian. Kontratu mugagabea eta urteko ordainsari gordina. 30.050 eurokoa eskaintzen da. Hiru urteko esperientzia, injineru teknikoa izatea eta euskara menperatzea eskatzen da. (67894/4). www.lanbide.net.

● **Aldizkari zuzendaria.** Barren Elgoibarko herri aldizkariak zuzendaria behar du. Kazetaritza lizentziatua, lantalde bat zuzentzeko gaitasuna, harremanetarako dohainak, euskara maila ona, eta gida baimena eta autoa izatea eskatzen da. Lanpostu honen inguruko informazio gehiago jasotzeko: 943-74 16 26 (Imanol).

Gehigarri guztiak. NH-AD. 600 euro (100.000 pezeta). Telefonoa: 943 - 81 61 74 edo 647 - 21 21 55. Ibon.

● **Autoa.** Peugeot 306 XSI. SS-AT. Telefonoa: 687- 21 71 16. Xabier.

● **Autoa.** Ford Orion 1.6. 601 euro (100.000 pezeta). Telefono zenbakiak: 679 - 81 66 66 edo 943 - 73 18 48.

● **Autoa.** Golf 1.8. GTI. 2.104 euro (350.000 pezeta). Telefonoa: 679 95 45 87.

7. DENETARIK

7.1. SALDU

● **Pabilioiak.** Industrialak. Neurri ezberdinetakoak. Telefonoa: 943 - 81 41 00. AMUBE.

● **Lur sail industrialak.** Neurri eta inguru ezberdinetan. Telefono zenbakia: 943 - 81 41 00. AMUBE.

● **Pianoa.** Modu onean. Telefonoa: 652 76 15 52. lñaki.

● **Astoa.** Asto bat bere umearekin saltzen da. Telefonoa: 943 - 81 64 34.

7.2. EROSI

● **Kasetea.** Autorako musika kasetea erosiko nuke, prezio onean. Telefonoa: 946 - 71 02 04 (Arritxu).

● **Egurra.** Botatako egurra, aritza, gaztaina, pinua, ohol zaharra eta urritza enborrak erosiko nituzke. Telefonoak: 943 - 81 34 74 edo 943 - 81 45 70.

7.5. BESTELAKOAK

● **Klase partikularrak.** D.B.H., lehen hezkuntza eta lor guztiak. Telefonoak: 943 - 81 63 97 edo 657 77 74 24.

● **Internet ikastaroa.** Martxoaren 11n hasiko da. Orduetgia: 09:00etatik 11:00etara. Aurrez izena eman behar da. Surbilan. Telefonoa: 943 - 15 70 66.


argazkilaye: Anjel Mari Etxeberria

Gertuko bazterrak, Xoxoteko bazterrak

● **ANJEL MARI ETXEBERRIA.** Azpeitia (1969). Orain dela zortzi urte hasi zen argazkiak ateratzen; kamera erosi eta argazkilaritzari heldu zion bere lehen afizioarekin batera –mendia–. Argazki guztiak mendian ateratzen ditu.

● **XOXOTE.** Herritik gertu dugun mendiko honen magalean aurki daitezkeen txoko eta bazter desberdinak jaso ditu zortzi urte hauetan Anjel Mari, eta hauetatik aukeraketa “xumea” egin du Uztarriarako.





1. ELURZULOA.

Azketatik Xoxoterako bidean dagoen elurzuloa.

2. PAGADIA.

Azketara heldu aurretik pagadi ederra artalde eta guzti.

3. SAN INAZIO.

Xoxotetik gertu San Inazio deuna, bere aldare eta guzti, ikusmira ederra eskaintzen duen lekua.

4. HARROBIA.




Izarraitzeko harrobia. Inguruko eskalada zaletuentzako txokoa.

5. BEGIRA.

Mendiartetik begirada eder bat Azketa aldera.

6. AZKETA.

Azketako iturria, Azpeititik Xoxotera bidean, dudarik gabe Azpeitiko urik ederrena. Zein azpeitiarrek ez ote du edan hango ura?





7



8

7. ATERBEA.


Xoxoteko aterbea elur manta ederrarekin.

8. HARRI BIDEA.

Urretatik Xoxotera bidean, goranzko harribidea.

9. ALDARETIK.

San Inazioaren deunaren beste irudi bat, aldaretik gertu. Irudiaren beraren azpialdetik, behetik gorako kameraren begirada.



9



SUAK ETA SU FALTAK

Agureekin hitz egitea gustatzen zait, uste dut aipatu dudala beste noizbait. Aukera dudan bakoitzean egiten dut. Egia da sarritan ez diegula kasu handiegirik egiten, baina aitortu behar dut entzun ditudan istorio interesgarrietakoak haien ahotik atera direla.

Agureekin jarraitu aurretik, ordea, Pako Aristiren aurreko artikulua gogoratu nahi dut. Pakok azpeitiarren arazo aipagarri baten inguruan hitz egin zuen: alegia, ez garela, nonbait, eta salbuespenak salbuespen, oso kariñosoak. Ez kanpotarrekin ez geure artean ere.

Agureen hariari berriro helduz, kontua da zenbait lagun Zumaiko taberna batean afaltzen ari ginela duela aste batzuk, eta Pakoren artikulua hura atera zela mahai gainera. Gehien-gehienak guztiz bat zetozen han esandakoekin (neskak eta mutilak geunden, zehaztuko dut), eta gaiak, artikulua baino areago, liburua merezi zuela hasi ginela, erdi-txantxetan (badakik, Pako: hor badek materiala). Baina afari-txantxaren lerroarteetan kezka irakur zitekeen. Sentimenduen mundua, beti nahasi eta nahasgarri.

Alboko mahai batean agure bat geneukan, afaria amaituta, antza zenez, eta egunkariaren bat leitzen. Noizean behin begira-begira geratzen zitzaigun, eta nabarmena zen zerbait esan ez esan zegoela. Halako batean egunkaria itxi, jaiki, eta gure mahaira etorri zen. Begiak piztuta zeuzkan, bizi-bizi eta ia irribarrez. Keinu batez esertzeko baimena eskatu, eta hantxe jarri zitzaigun. Guk elkarri begiratzen genion, ea zer ote zebilen ezin asmatuta eta pixka bat harrিতuta.

Segituan argitu zigun: guri entzuten jardun omen zuen eta pare bat gauza kontatu nahi zigun. Gaztetan festa-usainean ibiltzen omen zen lagunekin herriz herri. Guri entzunda, garai haiekakoak gogoratu zituen, itxuraz, eta sekretutxo bat aitortu zigun nostalgiaz blai: neskak omen zituen zaletasun handiena (a ze irribarre zabalaz esan zuen!), eta ia herri guztietan lortzen omen zuen zerbait (horrelaxe esan zigun). Zehazkiago, Azpeitia ez beste herri guztietan. Hemen kalabazak besterik ez omen zuen izan. Behin eta birritan eta hirutan saiatu omen zen, eta gehiagotan. Baina, esan zuenez, guztiz ezinezkoa zen Azpeitian ligatzea. Baita neskentzat ere, zehaztu zuen, gure taldeko neskak galdezka hasi zitzaizkionean. Azpeitiko neskak harroegiak omen ziren, eta mutilak, berriaz, astapotroegiak.

SUA ETA URA.

Herrian su faltan, urtegian ur faltan... Lasai, laster, denak hobera: simetria kontua (baina hatzak gurutza ditzagun)

Eta orain?, galdetu genion, nolakoak gara orain? Agureak barre egin zuen, baina ez zigun askoz gehiagorik esan, adieraziz bezala erantzuna geuk aurkitu beharko genuela, eta kanpora alde egin zuen. Itsaso aldera, argitu zigun.

Ez dakit agureak egindako diagnostikoa zuzena ote zen, beti baita zaila gertu duguna egoki neurtzea. Perspektiba txikiegia izaten da, eta epaiketaren zati bihurtzen gara. Baina ematen duenez, Azpeitian ligatzearen kontua (ez ligatzearena, hobeto esanda), aspaldikoa da. Pakorekin bat nator: ikastaroak (edo zerbait) antolatzea ez zait iruditzen batere ideia txarra.

Hala ere, esango nuke gazteenen artean gauzak aldatzen ari direla pixkanaka. Eta pentsatu nahiko nuke, adibidez, Xoxoten izan genuen sutea bikoteraren baten grina neurrigabeak piztutakoa izan zela (hala balitz, gaitz erdi). Baina ez dakit ez dakit. Diotenez, sute handia bai, baina arrunta besterik ez omen zen izan. A ze pena!



As.	At.	Az.	Os.	Ot.	La.	Ig.
			1	2	3	
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

MARTXOAK 2 (larunbata)

• ZUHAITZ EGUNA.

Zuhaitzaren eguna. Ingurugiro Etxearen eta ibaiaren inguruetan zuhaitz landaketa. 11:00etan.

• ARETO FUTBOLA.

Bigarren A Maila: Jostaldi Kiroiak-Idiazabal Gorrotxategi. Kiroldegian. 16:30ean.

• FUTBOLA.

Preferentea: Lagun Onak-Urola. Garmendipe futbol zelaietan. 17:00etan.

• MUSIKA.

I. Kulturaldiaren barruan Kitarista taldea. Udaletxe azpian. 19:30ean.

MARTXOAK 3 (igandea)

• ZUHAITZ LANDAKETA.

Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta zuhaitz landaketa goiz osoan. Gaztetxoentzat. Irteera 09:00etan.

MARTXOAK 4 (astelehena)

• ERAKUSKETA.

Azpeitiko Zine Klub Taldearen erakusketa. Martxoaren 22a arte irekita izango da. Astegunetan 18:00etatik 20:00ak arte. Antxieta Etxean.

MARTXOAK 8 (ostirala)

• POESIA ETA MUSIKA.

I. Kulturaldiaren barruan poesia eta musika emanaldia, Ibiltarixanak taldearekin. Aitonena I-eko aretoan. 21:00etan.

MARTXOAK 9 (larunbata)

• TXALAPARTA.

I. Kulturaldiaren barruan Txalaparta Zalaparta. Plazan. 17:30ean.

• POESIA ETA DIAPOAK.

I. Kulturaldiaren barruan dia-poesia: ikusteko poemak eta

martxoak 22 (ostirala) • 22:00 • Kiroldegia



EGUNKARIA

BENITO LERTXUNDI. Pasaiko Sarraskiaren XVIII. urteurrenako ekitaldien barruan Benito Lertxundiren kontzertua antolatu da Azpeitiko Kiroldegian, *Pasaiko sarraskia argitu* lemapean. Sarrerak aurretik salgai izango dira bederatzik eurotan, Korrale tabernan, Urtzi tabernan eta Zuhatz tabernan. Egun berean hamar euroren trukean izango dira saltzen.

martxoak 23 (larunbata) • 18:00 • Soreasu



ERNIARRAITZ

BERTSO FINALA. Bertsolari Gazteen I. Erniarraitz sariaketa bertso finala izango da hilaren 23an. Aurretik finalurako bi saioetan sailkatutako zortzi bertsolari gazte ariko dira bertan. Ondoren Azkoitian afora izango da bertsolariekin, bertsozaleekin eta antolatzaileekin.

Soreasuko filmak



• **'VANILLA SKY'.** Martxoaren 1ean (ostirala, 22:00etan), 2an (larunbata, 22:00etan), 3an (igandea, 17:15ean, 19:30ean eta 22:00etan) eta 4an (astelehena, 20:00etan). Soreasu zine aretoan.

Zine klubeko filmak



• **'INTIMICY'.** Martxoaren 8an (ostirala, 21:00etan). Soreasun.
• **'QUE NOCHE LA DE AQUEL DIA'.** Martxoaren 22an. (ostirala, 21:00). Soreasun.

entzuteko irudiak. Herriko hiru gazteren eskutik. Orkatz tabernan. 19:30ean.

MARTXOAK 10 (igandea)

• MENDIA.

Umeen Eskolarteko Ibilaldi Neurtuan parte hartzeko mendi irteera antolatu du Lagun Onak M.B.k. Irteera plazan 08:00etan.

• ARTISAU AZOKA.

Artisautza azoka. Plazan. 11:00etatik aurrera.

MARTXOAK 12 (asteartea)

• HITZALDI-EZTABAIDA.

Pasaiko Sarraskiaren XVIII. urtemugako ekitaldien barruan. Gaia: *etxebizitza arazoak: eskubidea ala luxua*. Hizlariak: 8842 Gasteizko Plataforma eta Donostiako Okupazioaren Koordinadora-ko partaidea. 20:30ean. Aitonena aretoan.

MARTXOAK 13 (asteazkena)

• HITZALDIA.

Hizlari: abokatu euskaldunen ordezkari bat. Aitonena I-eko aretoan. 20:00etan.

MARTXOAK 14 (osteguna)

• HITZALDI-EZTABAIDA.

Pasaiko Sarraskiaren XVIII.

Olatz Aguado

disenatzaile grafikoa eta ilustratzailea

«Matematikako klaseak aprobetxatzen nituen marrazkiak egiteko»

Nerea Aranburu / Olatz Aguadok bere kuadroen erakusketa ireki berri du. Otsailean zabaldu zituen ateak eta martxoaren 17a arte egongo dira lanak ikusgai Enparan kaleko Zintzilik dendan, Uztarría Kultur Koordinadorak antolatuta.

● Noiztik duzu margotzeko zaletasuna?

Niri beti gustatu izan zait mundu hau. Orain dela urte batzuk klasean hasi nintzen margotzen. Irakasleen karikaturak egitea nuen gogoko. Matematikako klaseak aprobetxatzen nituen marrazkiak egiteko. Horrela ekin nion marrazteari eta hortik pixkanaka-pixkanaka aurreratuz joan naiz.

● Nolako lanak egiten dituzu? Zein da zure estiloa?

Egiten ditudan lanak antzeko estilokoak dira denak. Oso kolore biziak eta aldi berean lauak erabiltzea gustatzen zait, moreak, horiak... Kolore grisa ere asko gustatzen zait marrazteko. Denetan marra beltz bat nagusitzen da, eta ez dago etenaldirik; hau da, marrazkiak hasi eta bukatu egiten ditut, saltorik gabe.

● Marrazkiak, ordenagailuz ala eskuz egiten dituzu?



NEREA ARANBURU

Bietatik. Nahiz eta gehienak ordenagailuz egin, eskuz marraztuak ere badaude tartean.

● Erakusketa zenbat lanez osatzen da? Salgai egongo al dira?

Orain antolatutako erakusketa honetan, 25en bat lan egongo dira ikusgai. Batzuk, lehen ere egon dira besteren batean baina beste batzuk berriak dira. Ikusgai egoteaz gain, eginda-ko lan hauek denak salgai egongo dira.

● **EKITALDIA:** Olatz Aguadoren kuadroen erakusketa ● **EGUNAK:** Martxoaren 17a arte

● **TOKIA:** Enparan kaleko Zintzilik dendan ● **ORDUA:** Denda orduetan ● **ANTOLATZAILEA:** Uztarría Azpeitiko Kultur Koordinadora, I. Kulturaldiaren barnean

urtemugako ekitaldien barruan. Gaia: *Iparraldeko egoera*. Hizlariak: Demoko kideak. 20:30ean. Aitonenan.

● III. GAZTE ASTEKO KARTEL LEHIAKETA

Zapo Txokon aurkeztuko dira lehiaketan parte hartuko duten kartelak. Lehiaketarako oinarriak, sariak... Gazte Informazio Bulegoan, 943-157116 telefonoan.

● GURASOEN TXOKOA.

Gaia: *Komunikabideen mintzairaren eragina haurengan*. Hizlaria: Juan Carlos Alonso. Psikologoa. Iturritxiki ludotekan 15:15etatik 16:45etara.

MARTXOAK 15 (ostirala)

● ARGAZKILARITZA.

XXIII. Kutxa Juan Antxieta Argazki Lehiaketan parte hartzeko argazkiak aurkezteko epea amaituko da. Antxieta Etxean. 20:00etarako aurkeztu beharko dira.

● MUSIKA.

Rock kontzertua: Os Gallar-

dos. Korrale tabernan. 23:00etan.

MARTXOAK 16 (larunbata)

● ARETO FUTBOLA.

Bigarren A Maila: Jostaldi kirolak-Irizar (Ormaiztegi). Kiroldegian. 16:30ean.

● FUTBOLA.

Preferentea: Lagun Onak-Hernani. Garmendipe futbol zelaian. 17:00etan.

● RALLY-SPRINTA.

Ikasberri Azpeitiko Ikastolak eta Lagun Artea Eskuderiak antolatuta.

● TXOTXA.

AEK-k antolatuta txotxa. Azoka plazan. 21:00etan. Bertan, losintxa lehiaketaren sari banaketa egingo da.

● MUSIKA.

Rock kontzertua. Plazan. 23:00etan.

MARTXOAK 17 (igandea)

● MENDIA.

Lagun Onak M.B.k antolatuta egun guztirako ibilaldia La-

raitz-Txindoki-Guardaetxe. Irteera plazatik 08:30ean.

MARTXOAK 19 (asteartea)

● JAIK.

San Jose jaiak Loiola auzoan.

MARTXOAK 21 (osteguna)

● HITZALDIA.

Pasaiko sarraskiaren XVIII. urtemugako ekitaldien barruan. Gaia: *Pasaiko epaiketaren egoera*. Hizlariak: familiako abokatua, akusazio partikularreko abokatua eta preso politiko bat. 20:30ean. Aitonena aretoan.

MARTXOAK 23 (larunbata)

● URTEMUGA.

Pasaiko sarraskiaren XVIII. urtemugako ekitaldiak. 13:00etan bertso poteoa trikitilariekin. 14:30ean herri bazkaria azoka plazan. 18:00etan antzerkia herriko plazan. 20:00etan manifesta-

zioa. 22:30ean kontzertua udaletxe azpian.

MARTXOAK 28 (osteguna)

● MENDIA.

Egun batzuetarako irteera antolatu du Lagun Onak M.B.k Guadarrama mendikatera (Madril). Aurretik izena eman beharko da Lagun Onak M.B.ren egoitzan.

MARTXOAK 30 (larunbata)

● MARATOI ERDIA.

Azkoitia-Azpeitia IX. Nazioartekoa. Antolatzailak Iraurgi, Peña Taurina El Andaluz eta Zaletu Taldea. Eguerdian Diego Garcíaren oroimeneko eskulturaren inaugurazioa, Loiolan. Maratoi erdiaren irteera 16:00etan izango da.

Zeun ekitaldiak-eta Uztarría helarazteko aukerak:

- Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerria (Azpeitia)
- 943 - 15 03 58 telefonoa / faxa
- uztarría@topagunea.com

Alberto Bereziartua

Sukaldaye Amerikako Estatu Batuetan

Boisei begiratue



- Amerikako Estatu Batuetan dao Boise, mendebaldien.
- Idaho estaduen.
- 160.000 lagun bizi die (Idahon milioi bat pasatxo).
- Nekazaritzie, informatikie ta zerbitzuek die nagusi lan munduen.
- Hizkuntzie: inglesa. Española asko hitz eiten da.
- Erlijijue: era askotakuek, baño mormoie batipat.

“Pete Cenarrusak beak sartu natxikan Ameriketean”



Badie iye 11 urte Alberto Bereziartua Boisea jun zala bizitzea. Baño ez du Azpeitiye ahaztu, ta bi urtien behin etortzen da; azkena Gabonetan —ordun eon ginen harekin—. Sukaldai dabil han.

• Nolatan jun hitzean Boisea?

Andrie bertakue dalako. 11 urte ja. Suer tie euki nian, ordie, sartzeko.

• Ze ba?

Pete Cenarrusa Idahoko estadu idazkayek beak —euskaldun odola zaukek— sartu natxikan. Española enbajadan bi urteko bisaue eskaute naukean han sartzeko, ta “hi, kamarero alu bat, bi urteako Ameriketa, diruik gabe ta ezer gabe?” esan ta ez zikaben eman bisaue. Andriei harea hotsein nitxoan, ez zibela uzten sartzan, ta andriek Pete honi hotsein ziyoan, ezagunek dielako; Cenarrusak enbajada hotsein zian, ta uzteko nei sartzan. Holaxe sartu nitxian Ameriketean.

• Inglesakin ze mouz...

Ondo. Hala're, andriekin euskeraz hitz eiten diat; attitte ta amana bizkaitarrak zitxian, ta etxien euskeraz ein izen dik.

• Zerekin txokau hitzean geyen Boisen?

Euskaldunok kalien bizi geala ta hayek etxien. Inbiri haundiye're baziok.

• Euskaldun asko al dao?

Oin bajatzen ai dek, baño Euskal Etxie baziok, ikastolie're bai bost urte artekue. Hala're ez dek lan politikue eiten.

• Heuk ze lanbide daukek?

Aurreneko zazpi urtien koñeduekin Ger nika tabernan, ta azkeneko hirun sukaldai, koñetan euskaldun jatetxien; baba gorriyek, txipiroiek... danetik preparatzen ditxiau. Gure amai beitutekuatik zakiat nik sukaldien.

• Bestela, ze eiten dek?

Bizikletie, paletan ibiltzen nauk, Boiseko futbol ligan parte hartzen diat, beisbolien'e ibiltzen nauk, golfien astero...

• Honea etorri ta ze eiten dek Boisen eiten ez dekena?


Lagun giruez gozau, afayetanda.

• New Yorkeko atentatue ta geo ze giro?

Jendie la letxe dek: patriotikue! Bushek zer esan, danak onartzen diabe. Bestela iñok ez dik politikan pentsatzen.

Enekoitz Esnaola

HANGO JENDIE. “Boisea alleau ta batek esan zikan: ‘Amerikanue puntapaxa sartzan munduko onena dek, baño geo esayok puntapax bea ateatzeko ta ez dik asmauko’”



Santi Lazkano Kirolak



Merkealdietako azken egunak 2001/2002 negua

Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50



7 urtetik aurrerako nesketan
txoko berria

Babesako Piratak

Xanjuandei auzuen gatxauden